



GORKA URBIZU

«Gurea izango da anbizioa
gaizki ikusita dagoen
lanbide bakarra»



- **Lan emigrazioa** Lau gazte, bizi proiektua ahal den lekuan eraikitzen
- **Frackinga** 100.000 sinadura lortu arren, zaila izango da EAEn debekatzea
- **Lix Lopez** Hizkuntza, lurra eta espiritualitatea bat eginda bizi dituen maia
- **Vietnam 1965** AEBen interesei erantzuten zien huts egindako esku-hartzea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginaz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko urriaren 19a, 2.433. zenbakia

ASTEKO GAIA

VIETNAM 1965 Gatazka amerikanizatuaren oinarriak.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

GORKA URBIZU: «Kultura gutxitua gara, baina gutxizalea ere bai batzuetan, eta gutxieslea askotan». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

GAZTEEN LAN EMIGRAZIOA Hautu askea ala behartua?
ITZIAR UGARTE IRIZAR / 14

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Osakidetzan aritzeko zerrendan egoteak bizitza baldintzatzen dizu.
LANDER ARRETREA BEREZIARTUA / 17

IRITZIAREN LEIHOA

FUNTSEZKO ADOSTASUNAK JUNE FERNÁNDEZ / 18
EUSKAL HERRIA TAFTA-Z KANPO? JAKES BORTAIRU / 20
NAFAR ERREALITATE INSTITUZIONALAZ

BIXENTE SERRANO IZKO / 21

EUSKARAREN GIZARTE-ERAKUNDEON ETORKIZUNA:
PALANKAK ETA BALAZTAK JOSU AZTIRIA URTARAN / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTETA / 19

TXANDAN Lucia. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Topatu. ENERITZ ARTETXE / 21

ERDIKO KAIERA

TANIA DE SOUSA: «Zenbait estereotipotatik ihes egin dut».
MYRIAM GARZIA / 24

DANTZALDI IBILTARIA Dantzaren alderdi soziala berreskuratzeko urratsa. MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA / 28

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 29

IHESI ISPASTER (BIZKAIA) Herri arkitekturaren lekuko.
ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
ALEA Guggenheim bete maisulan.

ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

FRACKINGA Alderdiek dute orain hitza EAEn. UNAI BREA / 39

LIX LOPEZ: «Pentsaera ez da aldatzen norberaren kultura, hizkuntza eta espiritualitatetik abiatzen ez den arte».
JON ARTANO IZETA / 44

DEUSTUKO ASKEGUNEAK Herri Harresia ez, baina alfonbra gorria ere ez. UNAI BREA / 48

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Gatazka amerikanizatuaren oinarriak

Ez zen gerra deklarazio ofizialik izan eta zaila da data zehatza ipintzea, baina duela 50 bat urte, 1964ko uda eta 1965eko negu amaiera bitartean, AEB Vietnamgo Gerran buru-belarri sartu zen. Interbentzio azkarra eta eraginkorra izango zen, munduko moralaren zaindari ahalguztidunek di-da garbituko zuten ipar vietnamdar ahulen mehatxu komunista. Edo hori uste zuten.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

VIETNAMGO GERRAREN IRUDIA oihaneke lokatzetan borrokan ari diren estatubatuar soldaduen irudia da Mendebaldeko subkontziente kolektiboan. Baina gatazkaren oinarriak AEBek muturra sartu baino lehenago bilatu behar dira. Bigarren Mundu Gerra amaitzean Frantziak agente koloniala berrezarri nahi zuen Indotxinan (Frantziak XVIII. mendearen amaieran inbaditu zuen herrialdea). Baina oposizio gogorra topatu zuen, Ho Chi Minh eta Vo Nguyen buru zituen

Viet Minh mugimendua, nagusiki nazionalistez eta komunistez osatutako Vietnament Independentziaren Aldeko Liga. Indotxinako Gerra 1946an hasi zen eta 1954an amaitu, Genevako Bake Konferentzian. Frantziarren porrotaren eta Suitzako hirian onartutako akordioen ondoren, frantziar Indotxina zatituta geratu zen: Kanbodia eta Laos estatu independenteak izango ziren eta Vietnam bitan banatu zuen 17. paraleloak. Bake akordioaren klausula batek zioen 1958an errefe-



1965eko martxoaren hasieran 3.500 marine lehorreratu ziren Da Nang-en, bertako hegazkin basea babesteko aginduekin. Hego Vietnamgo emakume gazte talde batek lorezko lepoko eta guzti egin zien ongietorria hondartzan.

Rolling Thunder operazioa edo nagusikeriaren ordaina



Rolling Thunder operazioaren bidez, Lyndon B. Johnson presidenteak hilabete eskasean Ipar Vietnamgo industria eta komunikabideak suntsitu nahi zituen. Baina bonbardaketa sistematikoek irtenbide baino arazo gehiago ekarri zikien estatubatuarrei.

ROLLING THUNDER operazioa AEBek Vietnamgo Errepublikak Demokratikoaren aurka abiatutako bonbardaketa kanpaina izan zen. 1965eko martxoaren 2an hasi ziren AEBetako Bigarren Aire Dibisio-ko hegazkinak bonbak jaurtitzen (aurrerago Zazpigarren Dibisioak emango zien erreleboa) baina operazioa planifikatzen urtebete inguru lehenago hasiak ziren. Horrek esan nahi du aurreko udan Tonkineko gertakariak aitzakia eman baino lehen ere erasotzeko asmo garbia zutela.

Johnson presidentearen asmoa hilabete eskasean Ipar Vietnamgo industria militarra eta komunikazio azpiegiturak suntsitzea zen. Horrela tropen, munitzioaren eta bestelako lehengaien hornikuntza etengo zuten eta Vietcongen osteak mendeen hartzea oso erraza izango zen.

Eraso azkarra eta eraginkorra izan behar zuena hiru urte eta erdiz luzatu zen, 1968ko azaroaren 22a arte. Orotara 860.000 tona bonba jaurti zituzten. Horietatik 128.000 tona jomugara iritsi ziren, baina gaur egun oraindik eztanda egin ez duten milaka eta milaka lehergailu geratzen dira ez bakarrik Vietnamen, baita inguruko herrialdeetan ere. Esaterako, egun Laoseko haurrentzako kanpaina bereziak egiten dituzte bonba horiekin jolasean ibil ez daitezen, urtero ehunka zauritu eragiten baitituzte estatubatuarrek botatako bonbek. Guztira 922 hegazkin galdu ziren, horietatik 818 guduan eroriak. AEBen-

tzat 1.247 milioi dolarreko kostua izan zuen operazioak. Eta ahaleginak emaitza kaxkarrak izan zituen haienez; AEBek Asia hego-ekialdean hedatuta zeukan aire indarrak aginte egitura nahasia eta zatitua zuen eta, gainera, pilotuen prestakuntza falta nabaria zen. Bestalde, vietnamdarren erresistentzia espero baino eraginkorragoa izan zen. Rolling Thunder operazioak ez zuen vietnamdar industria suntsitzea lortu eta garraio azpiegiturak berehala konpontzen zituzten vietnamdarrek. Gerora egindako kalkuluen arabera, vietnamdar azpiegituren dolar bat suntsitzeko estatubatuarrek 9,6 dolar xahutu behar zituzten.

Baina galera ez zen soilik ekonomikoa izan. Washingtongo politika militarren arduradunek huts egin zuten, baina politika zibilaren arduradunak ere bai. AEBetako hiritarrek inozentzia galtzea ekarri zuen operazioaren porrotak. Ordura arte uste zuten haien interbentzio militarrek moralki beste herrialdeenak baino onargarriagoak ziren helburuak zituztela eta nagusitasun moral hori zalantzan jartzen hasi ziren. Gainera, ehunka pilotu galdu zituzten. Preso hartutakoak telebistaz erakusten zituzten Hanoi Hilton ezagunean giltzapetuta. Beste asko guduan erori eta haien gorpuak ez zituzten inoiz berreskuratu. Bonbardaketek etxeko iritziz publikoa leherrarazi zuten, etsaien gune estrategikoak suntsitu beharrean.

VIETNAM 1965

renduma burutuko zela bi Vietnamak batzeko aukerarekin.

Baina erreferenduma ez zen gauzatu eta vietnamdarrek ez zuten bat egin. Iparraldean Vietnamgo Errepublik Demokratikoa eratu zen eta hegoaldekoen aurkako erresistentzia Vietnamgo Nazio Askapenerako Frontean gorpuztuz joan zen; mugimendua Vietcong izenez da ezagunagoa. Hegoaldean Ngo Dinh Diem-ek estatu kolpea jo zuen 1955eko apirilaren 15an, eta diktadura ezarri zuen. Diemen erregimenaren gehiegikeriak nabarmenak izan arren, AEBen babesa zuen; finean, CIAren laguntzaz lortu zuen boterea diktadoreak.

Ekintza armatuak 1955ean bertan hasi ziren, baina Vietcongen gerrilla gerra antolatua eta, beraz, Vietnamgo Gerra edo Indotxinako II. Gerra 1959an abiatu zen. Militar estatubatuarren arteko lehen bi bajak ere urte bereko uztailan gertatu ziren.

Aitzakiaren zain

1960an, John F. Kennedyren gobernu berriak Truman eta Eisenhowerren nazioarteko politika antikomunistei jarraipena eman zien funtsean. Baina 1961ean Kennedyk krisi hirukoitzari egin behar izan zion aurre: Bahía de Cochinosen (Kuba) inbasioaren porrota; sobietarrek Berlingo harresia jasotzea; eta Laosko gobernu ofizialaren eta Pathet Lao mugimendu komunistaren arteko negoziazioak. AEBren irudia ahultzen ari zen SESBen aurrean. Hala, maiatzaren 11n Vietnamerako Programa Presidentziala onartu zuten, Hego Vietnam defendatzeko konpromisoa berretsiz. Adierazpenaren sarrerako hitzak dira hauek: “Estatu Batuen helburua komunistek Hego Vietnam mendean har dezaten saihestea da; herrialde horretan gizarte bideragarria eta gero eta demokratikoagoa sortzea”. Baina planteamendu teoriko horren gainetik, Kennedyren beraren hitzek utzi zituzten agerian AEBen benetako asmoak: “Orain arazo bat daukagu gure boterea nazioartean sinesgarri egiteko eta Vietnamek horretarako toki egokia dirudi”.

1964ko udan Kennedy hila zegoen eta Lyndon B. Johnsonek ordezkatu zuen Etxe Zurian. Hego vietnamdarrek herrialdearen %60 mendean zuten, apurka aurrera egiten ari ziren eta ez zirudien joera aldatuko zenik. AEBetako 60.000 militar zeuden orduan Vietnamen, baina guztiak aholkulari gisa; horregatik 1960ko hamarkadaren lehen erdiari “aholkularien aldia” ere esaten zaio. Abuztuaren 2an, Tonkin golkoan, ipar vietnamdarrek USS Maddox destruktorea eraso zuten, biharamunean USS Turner Joy destruktorea, eta abuztuaren 4an berriro erasoa jo omen zuten, horren frogarik ez dagoen arren. Eraso guztiak egiazkoak izan ala ez, AEBetako presidenteari kon-



DAVE ANDERSON

USS Maddox ontzia Pearl Harbor-en, 1961ean (731 zbkia. duena). Hiru urte geroago ipar vietnamdarrek Tonkin golkoan hondoratu zuten eta AEBek gertakaria esku-hartzea legitimatzeko aitzakiatzat erabili zuten.



YTOCHI OKAMOTO

Lyndon B. Johnson (1908-1973) AEBetako presidentea Vietnamen, soldaduei ohore-dominak banatzen. Johnson izan zen interbentzioaren bultzatzaile nagusia.



ASSOCIATED PRESS

Malgutasuna, dispersioa, ezustekoa, pazientzia eta haien arteko batasuna izan ziren ipar vietnamdarren arma nagusiak, AEBetako indarrei aurre egiteko.

Historia ez dute beti irabazleek idazten (edo filmatzen)

HISTORIA IRABAZLEEK IDAZTEN DUTE, galtzaileak estatubatuarrek direnean ezik. AEBen interbentzioak porrot egin zuen, baina Vietnamgo gerraren amerikar nazioak arrakasta izan zuen, gatazkaren pertzepzioari dagokionean behintzat. Galdu arren, estatubatuarrek jaso eta zabaldu dute Vietnamgo Gerraren berri. Historia haiek idatzi dute eta, bereziki, haiek filmatu dute.

“Egunen batean hurrei eskolan ia dena filmen bidez irakatsiko diete. Ez dute historia libururik gehiago irakurri beharko” bota zuen David W. Griffith (1875-1948) zinemagileak 1915ean. Ezin esan oro har iragarpenarekin bete-betean asmatu zuenik, baina Vietnamgo Gerrari dagokionean ez zebilen oso oker. Eskolako testuliburuetan ezer gutxi irakurri dugu gatazka horri buruz, baina hainbeste film egin dira, Vietnamgo Gerra zinemaren genero bereizi bihurtu dela ia.

The Deer Hunter (Michael Cimino, 1978), *Apocalypse Now* (Francis Ford Coppola, 1979), *Full Metal Jacket* (Stanley Kubrick, 1987), *Good Morning Vietnam* (Barry Levinson, 1987), *Platoon* (Oliver Stone, 1986), *Born On The Fourth of July* (Oliver Stone, 1989) edo *Casualties of War* (Brian de Palma, 1989) dira Vietnamgo Gerrak

zineman emandako emaitzarik bikainenetako batzuk. *The Green Berets* (John Wayne, 1968), *Rambo: First Blood* (Ted Kotcheff, 1982) eta beste batzuek propaganda antikomunista handia eta interes historiko txikia dute. Gerraren kaosa eta desmitifikatzea zorrotz eta kritiko jorratzen dute lan batzuek, sotiltasun gutxiko patriotismoa saltzen dute beste batzuek, eta badira gerra akzio bizirako aitzakia huts gisa erabiltzen duten filmak ere. Baina guztiek estatubatuarrek dituzte protagonista, guztiak daude haien ikuspuntutik eginak.

1991n Bao Ninh soldadu ipar vietnamdar ohiak *Thân phận của tình yêu* eleberria argitaratu zuen, gerran bizitakoak bilduz. 1994an ingelesezko itzulpena argitaratu zen (*The Sorrow Of War*), 1997an frantsesezkoa (*Le chagrin de la guerre*) eta 2007an gaztelaniazkoa (*El dolor de la guerra*). Horrenbestez, ipar vietnamdarren ikuspegia ezagutzeko eskura daukagun aukera bakarretakoa da. Ez da kontakizun objektiboa eta ez die erantzunik gabeko galdera guztiak erantzuten. Nobela bat da, azken finean, autobiografikoa izan arren. Baina ez du garaileen bandoa edertzen; alderdikierarik gabe jasotzen ditu ipar vietnamdarren akatsak eta indarkeriak ere. Eta Vietnamgo Gerraren bertsio amerikanizatu zertxobait zabaltzeko aukera ematen du.

gresua biltzeko legitimazioa eman zioten. Abuztuaren 6an Tonkin Golkoko Erabakia hartu zuen AEBetako kongresuak. Horren bidez aholkulari militarrek euren baseetatik kanpo operazioak burutzeko baimena zuten eta, gainera, tropa kopurua handitzeko trabarik ez zegoen.

Hala, 1965eko martxoaren hasieran, batetik, Rolling Thunder bonbardaketa kanpaina abian jarri zen eta, bestetik, Da Nang-eko hegazkin basean 3.500 marine lehorreratu ziren (urte amaieran 100.000tik gora izango ziren). Ofizialki AEB ez zen beste herrialde baten kontra gerran hasi Nazioarteko Zuzenbidearen ikus-

pegitik; ez zen deklaraziorik izan eta Hego Vietnam ez zuten inbaditu (haien onespenerkin sartu baitziren).

AEBen helburu politikoa Ipar Vietnam isolatzea eta Vietcong solaskide gisa baztertzea zen. Horretarako More Flags propaganda kanpaina jarri zuen abian, etxeko nahiz kanpoko iritzi publikoa bere aldera lerratu nahian. Estatubatuarrek, beren nagusitasuna sinetsita, ez zuten negoziatorik nahi; gerra komeni zitzairen. Helburu militarra Hanoi gerra irabaztea ezinezkoa zitzaiola sinestaraztea zen eta horregatik jarri zuten abian RollinThunder operazioa. Alderdien arteko indar desoreka



Txuleta

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermín Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



LIFE

Soldadu estatubatuarra 1968ko maiatzean, A Shau bailaran. Ordurako gerrak aspaldi bukatua egon behar zuen estatubatuarren aurreikuspenen arabera. Baina 1968 inflexio urtea izan zen gatazkan. AEBetako osteak guduak eta morala galtzen hasi ziren.

teorikoa lagun, estatubatuarren egoera berehala kontrolpean izango zutela aurreikusi zuten. Hilabeteren buruan lortu nahi zuten, 10 urtetan lortuko ez zutena.

Americanization

AEBek gatazka zibil horretan egin zuten interbentzioari *Americanization* ere esaten zaio, estatubatuarrek kontinente osoa beraiena ez dela ahazteko duten joera lagun. Vietnamdarrek beraiek “gerra amerikarra” ere esango zioten gatazkari. Baina horrek ez du esan nahi “amerikarrek” gerra nahi zuten bidetik eraman zutenik. Gerora, Nixonen agintaldian, gatazkaren “vietnamizazioa” martxan jarri zuten, baina horretan ere porrot egingo zuten.

Ipar vietnamdarrek etxean jokatzeko zuten. Haiek ere gehiegikeriak egin zituzten, jakina, baina landa eremuko biztanleen babesari eusten asmatu zuten. AEBek aireko erasoetan zubi bat edo errepide bat suntsitzen bazuten, berehala gizon-emakume andana lanean hasten zen kalteak konpondu eta bideak zabaltzeko. Hiriguneetan estolderia baliatzen zuten hegazkinen erasoetatik babesteko, eta landan eraiki zuten tunel sareak, bonbardaketek babesteaz gain, arerioaren aurrean desgertzeko aukera ematen zien. Malgutasuna, dispertsioa, ezustekoa eta pazientzia ziren haien arma nagusiak. Eta batasuna. Guztiek bizi baldintza berberak partekatzen zituzten, ofizialak soldadu soilen zulo berberetan bizi ziren. Eta horri esker denak borroka berberaren parte sentitzen ziren. Duong Thi Xuan Quy emakumezko soldaduak zera idatzi zuen bere egunerokoan: “Basoan bakarrik nengibila, nire ahuldadeaz jabetu nintzen. Dena oso lasai zegoen, ez nuen inor ez aurrean ez

atzean, bakar-bakarrik nengoen bidean. Baina seguru sentitzen nintzen banekielako kamaradak gertu nituela, denak elkarrekin frontera gindoazela”.

Estatubatuarrek, kanpoan jokatzeko gain, ez zuten esperientziarik. Paul Hardcastleren 19 abestiak ederki jaso zuenez, gatazkan aritu ziren estatubatuarren batez besteko adina 19 urtekoa zen. Eta goitik zetozen aginduak ere ez ziren lagungarri; Gerra Hotzean sobietarren aurka garatutako estrategiek ez zuten balio Vietnamgo oihanean. “Lehen gerra zen zu haien kontra. Orain eseri eta zain geratzen zara, haiek noiz etzanda egingo edo zuk noiz etzanda egingo” esan zuen Indar Bereziatiko kide batek. Gutxi batzuk 1965ean bertan hasi ziren Washingtonen errekrutatze sistema bidegabe eta klasista salatzen. Gerra luzatu ahala, arrakala hura zabaltzen joan zen eta AEBetako Gobernuak etxe barruko fronteaz ere kezkatzen hasi zen. Bitartean, frontera bidalitako soldadu kopuruak etengabe hazten ari zen. 1965eko azaroaren 27an Pentagonoak adierazi zuen soldadu kopurua 120.000tik 400.000ra handitu behar zuela, gerra irabazi nahi bazuten.

Egia da 1965eko ia gudu guztiak AEBek irabazi zituztela. Baina gudu haiek estatubatuarrek nahi baino kalte gutxiago eragin zieten etsaiei eta nahi baino etekin gutxiago atera zuten. Teorian gerra labur eta erraza izango zena, luzatzen, mantsotzen eta gogortzen joan zen. Hego vietnamdarrek eta estatubatuarrek aurrera egiten jarraitu zuten, gero eta nekezago, 1968an inflexio puntua iritsi zen arte. Eta handik aurrerakoak dozenaka filmetan azaldu dizkigute. ■



PERTSONAIA

GORKA URBIZU

«Kultura gutxitua gara, baina gutxizalea ere bai batzuetan, eta gutxieslea askotan»

Jaio.Musika.Hil.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Jaio” eta “Hil”-en artean “Musika” dago.

Nire bizitza. Pasioa da, zerbaiten parte sentitzeko atea, baina batez ere, barruak hustu eta konpartitzeko bidea. Pertsonalki barrura begirakoa naiz, ez oso soziala, eta musikari esker botatzen ditut kalean isiltzen

ditudanak. Itzela da jendeak emozio deskarga hori bere egin eta *feedbacka* sentitzea. Hori hala, gurean artistak gosea pasa behar duela dirudi, horrek ematen diola *glamourra*. Beti izango du “noizko lanbide normal bat?” galdera kriminala atezuan. Niretzako

musikaz bizitzea ez da inoiz helburua izan, denborarekin eraikitzen joan den bidea baizik. Profesionalizazioarekiko errezeloak izan ditut beti, baina orain mamu faltsuak zirela esan dezaket. Bosgarren diskoan utzi genituen lanak, epe luzerako apustu bat zela jakitun, paisaiaz gozatzeko eta helmugetara iristeko presarik ez izateko filosofiarekin. Hori surrealista da berehalako etekin eta emaitzen diktadurapeko munduan. Oso koherentea iruditzen zait, aukera izanez gero, moztorra janzten eta erantzten ibili beharrean, 24 orduz izatea musikari. Kurio-soa da, jende asko bizi da musikatik, eta hori ahalbidetzen duen musikaria da hortaz bizi ezin litekeen bakarrenetakoa. Behin hortik bizituta, jakina alderdi ez hain erromantiko bat dagoela, sortzeaz, jotzeaz eta musika egiteaz harago zaindu beharreko alderdi bat. Baina urrats koherente horren parte da, ulertu behar duzu, barneratu, eta batez ere, alderdi erromantikoa lehenetsi, ez dadin zeregin periferikoek itota gelditu. Oso garrantzitsua da musikala ez denarekin ez obsesionatzea.

Nola kudeatzen da arrakasta, burua ateratzen duenari segaz moztzen zaion herri honetan?

Garaia da gauzei euren zinezko neurria hartzeko. Euskal musikan *mainstreama* balego bezala ari gara, baina gure *mainstreama* jostailuzkoa da eta gure atrofia kontuan hartzea ahazten zaigu. Niretzat arrakasta zuk zure bidea egin eta jendea zure kantuekin zu beste musikari batzuen abestiekin emozio-natzen zaren gisan emozionatzea da. Kontziente naiz talde bat oso ezaguna egiten denean, hedabideetan asko agertzen denean, errezelozko “berriz hauek!” ateratzen zaiola jendeari. Niri ere ateratzen zait. Horregatik asmatu behar duzu etengabe, bizirik sentitzeko. Iraun genezakeen beti kantu berak jotzen, abesti ezagunenen esklabo, zirkuitu beraren gatibu, baina horrek taldea oxigeno gabe utziko zukeen. Ezinbestekoa da bide ezberdinak urratzen saiatzea, erronka berriei aurre egitea, eta zure burua behartzea. Errespetua ez da beti jendeak entzun nahi duena joz irabazten, xaxatuz baizik. Taldeak behartu behar du publikoa, “hau egin nuen, hau eman nizun, baina orain beste hau da nire harrikada” adieraziz.

Arrakasta aipatzean zergatik ez da inor mintzo gibeletako lan eta balore artistikoaz?

Jendeak ez du lana baloratzen. Ez dakit ez ote garen talibanak gure kultura txiki honekin. Ados, euskarazkoa izaki kultura gutxitua gara, baina gutxizalea ere bai batzuetan,

eta gutxieslea askotan. Hori oso triste da. Erraza da arrakasta jendeak nahi duena egiten dugulako biltzen dugula esatea, edo balizko *mainstream* euskaldunean surfeatzen dugula pentsatzea, baina horrek euskal eszenari buruzko mamu faltsuak elikatu baizik ez du egiten. Dena eta edozer dianaren erdian jartzeko prest dagoen *enfant terrible* asko dabil bazterretan baina azken batean, musika egitea kantuak sortu, furgonetan sartu eta oholdtzen izerditzea da. Beste guztia periferikoa da. Horregatik da niretzat artistaren anbizioa positiboa, hobetu nahia baita, etengabeko ikasketa honetan urrats bat harago emateko ahalegina. Hori da musikaren magia. Baina ez, gurea izango da anbizioa gaizki ikusita dagoen lanbide bakarra. Gure gutxizaleatasunari esker, eroso gaude gure txikitasunean, eta orain dela 25 urteko arazoei egozten dizkiegu erruak. Hortxe gabilta gure branka txikiekin akuarioran gustura, A-8an bira egiten, itsasora irteten nahi duenari buruz gaizki esaka. Eskertuko nuke beste askok akuarioko errege izaten saiatu beharrean itsasora irteteko ahalegina egingo balute.

Gure akuarioran, desagertutako taldeak dira errege. Zergatik?

Gaur egun inongo kasurik egiten ez zaion talde bat bananduko balitz, hemendik hamar urtera “horiek bai zirela!” esango litzateke. Horrek nazka ematen dit. Taldea desagiten denean sekulako negar eta lanturak entzuten dira eta jotzen zuten bitartean 80 lagun zeuden kontzertuetan. Batek ez ditugu gure artistak ezagutzen, eta bestetik 80ko hamarkadarekiko dependetzia izugarria daukagu. Oraindik inork ez du hitz egin 90eko hamarkadaz. Orokorrean, musikalki oso kontserbadoreak gara. Nostalgia eta dinosauroen artean bizi gara. Dinosauroak beti izango dira dinosauro eta beti mugituko dute jendea. Amorrua ematen dit agian Berri Txarrak dinosauro erdizahar bihurtu dela pentsatze hutsak, baina oso zaila da liga horretan sar-

NORTASUN AGIRIA

Gorka Urbizu 1977ko maiatzaren 31n sortu zen Lekunberrin. Txikitan, pianoa eta esku-soinua jotzen ikasirik, 14 urterekin Nahita Nahiez taldean teklatu jole hasi zen. 1994an, Berri Txarrak taldea sortu eta bertako kantari eta gitarra-jolea da geroztik; zortzi disko (bederatzigarrena azaroan kaleratuko dute) eta DVD bat kaleratu dituzte. Bestalde, kolaborazio andana egin du, eta Peiremans eta Katamalo proiektuen parte izan da.





OFF THE RECORD

Tabernan

Itxita dago taberna. Metatutakoetatik hiru aulki eta mahai bat akomodatu, eta dantzan hasi dira hitzak. Bira osteko hamar eguneko gaixoaldia pasa eta disko berria labean sartzen harrapatu dugu Gorka. Elkarrizketa pertsonal bati ezetz esateko garai onenean. Alabaina, letra kantuairen aldatuari nola, senetz egokitzen dizkie hitz eta irudiak ideiei. Ez du hanka-sartzearen kerik nahi, baina ez dio uko egiten arriskuaren suari. Oholtzako jarrera dakar grabagailu aurrera: izerditu dezala hitzak eta hitz egin dezala izerdiak. Segidarik gabeko trenbidean argazkiak egin, krimenaren arrastoak ezabatuko balitu legez aulkiak eta mahaia metatu, eta herrirantz doan gibelego bide atarian agurtu dugu elkar. Tabernak itxita jarraitzen du. Laster zabalduko dute.

tzea. Oso tristea da hori. Horregatik poztuko nintzateke talde gazte bat etorri eta tronpetarik gabe ostikoa emango baligu denoi.

Tronpetarik gabe ostikoak ematea ez al da Berri Txarraken oinarrizko jarrera?

Disko berrianitsu-itsuan sinesten dudana esaldi bat dator: "Exijitzen ahal den minimoa pasioa da". Taulara igotzean kantuak dira protagonistak, ez zu, ez zure irudia, ez argiak, ez diskurtsoak... Kantuek hunkitzen dute jendea, eta gure lanbidea zerbait bada, jendea hunkitzea da. Hunkitzea izan liteke plazera ematea, hausnarketarako esaldiak botatzea, baina batez ere, emozionatzea da. Itzuli dadila jendea etxera kontzertu aurretik ez zuen zerbaitekin, arnasbide batekin, une errepikaezina bizi izanaren zirraraz, edo besterik gabe, rockaren parte sentituz. Periferiek prozesua aspertzen eta moteltzen dute. Talde bat sortu berri duten ezagunak etortzen zaizkit ze gitarra, anpli edo mikro erosiko nukeen galdetzeraz, eta ez dute ulertzen hori nire lehentasunen zerrendan atzean dagoela. Lehenengo kantuak egin behar dira, letrak, jo, gaizki jo, berriz entseatzera sartu... Horiek dira oinarrizko lehentasunak eta beste guztia periferia da. Guk hori beti izan dugu garbi. Oso talde musikala izan gara beti.

Musikala izateak etengabe arriskuak hartzea esan nahi du?

Niretzat, rockak arrisku puntu hori galtzen duenean interesgarria izateari uzten dio. Rocka eta arriskua oso lotuta daude. Guri metalaren indarra, punkaren jarrera eta pop-aren melodia gustatzen zaizkigu, iturri

askotatik edaten dugu, eta espektroa zabalteak ortodoxia eraisteko balio du. Zuzeneko ere beti da inkognita bat. Horregatik aldatzen dugu aldiro kantu zerrenda. Kontzertua baino ordubete lehenago egiten dugu, gure teknikariak oso urduri jartzen dira, baina alde kamaleoniko horrek bizirik mantentzen gaitu. Esaterako iaz, bi-hiru astetan Ibarako Gaztetxean, Donostiako Kursaal eta Hellfest-en (Europako metal, punk eta hard core jaialdi handienetakoan) jo genuen. Bira berean ari ginen, kontzertuek ez zuten elkarrekin zerikusirik izan, hiru kantu zerrendak oso ezberdinak izan ziren, baina ez zen ezer pasa. Arriskua musikaren misterioaren parte da.

Zure letrak ere ez dute misteriorik falta. Tes-tuinguru argietatik xenda lausoetara abiatuzalea zara.

Kantua entzuleak borobildu behar duela sinesten dut. Kantua errekatxo bat da, letragileak harriak jartzen ditu, eta norberari dagokio koska batetik bestera jauzi egitea. Ni harriak jarrizalea naiz, baina ez eskatu zure partez salto egiteko. Hori hala, gerta liteke ustez kantu politikoa idatzi eta entzuleak maitasun abestitzat hartzea. Edo alderantziz. Interpretazio ireki horiek oso aberasgarriak dira kantuairentzat. Kantua oso itxia dagoenean, edo letra oso nabarmena denean, bai denboran bai emozio-bideetan, oso ibilbide laburra izaten du. Horregatik, azken urteetan letrak dira nire buruhauste handiena. Kantu bat sortzea ez zait hainbeste kostatzen, baina letra batekin gustura geratzea bai. Ez dira alferrik denboran irauten duten kantuak letra onak dituztenak.

Suposatzen da rockak berehalakotasuna behar duela, filosofatzeko tarte estua duela, eta nekeza da rock kantu baten baitako poetikotasunaren neurria bilatzea. Nik ez dut nire burua kronistatzat, baina inportantea zait musikak erantzun bat ematea bere garaiari. Era berean, Bide Ertzean-ek dioten bezala, “gaur ez daukat manifesturik”, eta maitasuna, maitasun eza edo bakardadea bezalako gai unibertsalei buruz aritzeko beharra sentitzen dut. Hori bai, Berri Txarrakekin holako kantuekin bakarrik disko bat egitea aukerakaldua irudituko litzaidake.

Aro zaharretik irten eta berrian sartu gabe, *selfy*-ak egin eta egin, aukerak galtzeko moduan gaude?

Anaia Handi etengabeko honek magia puntu bat kendu dio musikari. Inprobisaziorako gogoia ahistzen du momentuan otu zaizun txorakeria munduaren erakusleioan zintzilikatu dezaketela jakiteak. Edo alderantziz, talde baten zain zaude eta bart Kopenhagen eman zuten kontzertua ikus dezakezu, zer argiteria erabili zuten, zer kantu jo... Bizi dugun zapping aro honek dena jarri digu eskura, baina arreta galarazten digu. Atxagak dio ez dela aro onena literaturarako, dena oso azkar doanez jendeak ez daukala pazientziarik liburukote bat irakurri edo blog bat jarraitzeko. Hori musikari aplikatzen ahal zaiola dirudi, baina niri bost. Baliteke zaharkitua gelditzea, baina nik sinesten dut diskoan, kantuen bilduman, eta lan bat entzuteko 45 minutu ez badauzkazu, zuretzat kalte. Internetekin jendeak kristalezko bola bat zeukala zirudien, baina aho handiz eta ziur hitz egin duen jendea ipurdi-bistan utzi du denborak. Adibidez, gure testuinguruan, single bakarria duen talde batek egin dezake bira bat? Joan zaitez kontzertu batera eta kanta bakarria jo, ea zer

“Iraun genezakeen beti kantu berak jotzen, abesti ezagunenen esklabo, zirkuitu beraren gatibu, baina horrek taldea oxigeno gabe utziko zukeen”

gertatzen den... Internetek ate guztiak zabalitzen dituela esaten denean, zenbateraino da egia txiletar batentzat zure kontzertu bat ikustea erraza dela? Zertarako balio digu demokratizazio eta horizontalizazio horrek, Spotify-en Lisabo jarri eta ez bada agertuko? Doakotasuna frenatzeko modurik egongo ez denez hemendik 20 urtera musika oparituko dela diote batzuek. Gaur egun ere diskoa kontzertuak eman ahal izateko aitzakia baizik ez dela entzuten diet askori. Ez dut ulertzen. Niretzat disko bat oso gauza serioa da. Ados, rockak zuzenekoetan hartzen du zentzua, baina niretzat disko bat ez da sekula zuzenean jotzeko aitzakia izango. Horregatik diot, niretzat etorkizuna gaur gehi gaur gehi gaur... dela.

Gaur gehi gaur gehi gaur... 20 urte bete ditu Berri Txarrakek.

Ez genuen ohiko bilduma lana egin nahi. Ez gara sekula oso atzera begira jarrizaleak izan. Eman dugun urrats bakoitza baloratzen dugu, baina aurrera begira beti. Horregatik eman dugu gure 20. urteurrena disko berri bat konposatzen, lan berezi bat prestatzen. Hori da gure arnasa. Aldi berean, egin dugun ospakizun biratxoan, harrituta geratu gara etorri den jende saldoarekin, kantu zaharrak berreskuratzea baimendu diegu gure buruei, eta denboraren joanak dakarren puntu generazionalaz ohartu naiz. Izugarria da jendea kantuen bartzet bere bizitza lotzen sentitzea. Orduan, ulertzen duzu zergatik duen rockak hain lotura zuzena nerabezaroarekin. Lehenengo maitasunaren zirrarekin oso lotuta dagoen zerbait da rocka, ezin da etengabe sentitu, eta horregatik ez dira sekula oso lagun onak izan zahartzaroa eta rocka. ■





- Abentura kirolak
 - Ezkonurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidalak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635.748.948 - 635.748.947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com







Hautu askea ala behartua?

Azken urteetako egoera ekonomikoak inoiz baino beherago jarri du gazte enpleguaren lerro gorria. Ondorioz, ugari dira atzerrira doazenak, lanpostu duinen bila, kanpoko esperientziez ikastera. Baina zailtasunak ez dira amaitzen mugaz bestalde.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

KRISI EKONOMIKOA lehertu zenetik, %43 inguru hazi da atzerrira doazen Hego Euskal Herriko gazteen kopurua. 2012. urtean 18-34 urte arteko 22.300 gazte joan ziren eta goranzkoa da joera. Are gehiago, ziurrenik handiagoa da benetako kopurua, hainbatek ez baitu baja ematen utzi duen herriko errol-dan, eskubideak galtzea dakarrelako horrek (diru-laguntza publikoak jasotzeko aukera, pentsiorako kotizazioa, babes ofizialeko etxetara sarbidea, udal hauteskundeetan bozkatzeko aukera...). Eskubide horiek galtzeak eta gazteen lan emigrazioak dakartzan zailtasunak azaleratu asmoz, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak *Sos gazte: gazteen lan emigrazioa* txostena plazaratu zuen 2013an. Gazteak atzerriratzera animatzen dituzten mezuen aurrean, fenomenoaren “alde iluna” azaldu dute.

Emigratzeko erabakia pertsonala eta positiboa izan daitekeen arren, erakundetik azaldu dute ez dela onargarria gazteak horretara bultzatzea, bertan dituzten eskubideak bermatzeko gai ez garen bitartean. Sarri, gazteen prekarietateak helmuga berrian ere badirauela ondorioztatu du txostenak eta berdintasuna, segurtasuna edo sexu askatasuna bezalako eskubideak galtzeko arriskua dutela, herrialdearen arabera. Ondorio sozial eta pertsonala ere nabarmendu dute.

Iparraldean, emigrazio sistematikoa

Ipar Euskal Herriko egoera larriagoa da Eguzki Urteaga EHUKo Soziologia irakaslearen ustetan, bertako gazteen emigrazioa ez baita bukatuko krisi ekonomikoarekin, arazoa gabezia estrukturalak sortzen du. Urtero 8.000 ikasle inguru doaz Paue, Tolosa Okzitania edo Parisera goi mailako ikasketak egitera eta asko ez dira itzultzen, Iparraldean ez dutelako ikasitakoaren araberrako lanposturik

aurkitzen. Urteagaren esanetan, arazoa konpontzeak unibertitate propio bezain sendoa edukitzea eta bertako lan-merkatuak gazte prestatu horiek integratzeko gaitasuna izatea eskatzen du.

Egunoa inoizko belaunaldirik trebatuena dela diote datuek, eta akademikoki prestatue-nak dira joaten lehenak. Soziologoaren abu-

ruz, gazteen prestakuntza akademikoen eta enpresen lan eskaintzaren arteko desoreka dago horren atzean. Ikerkuntzan eta garapenean nahikoa inbertitzen ez dela deritzo eta gazteen prestakuntza ez dela behar bezala baloratzen, bereziki Hegoaldean. Ernai gazte antolakundetik gaineratu dutenez, multinazionalen enpresa

eredua ere bada arazo, eguneroko beharrei erantzuteko prestakuntza baxuak autogestioa eta ziurtasuna zailtzen dituelako.

Atzerriratzea ez da txarra, berez. Bat datoz horretan bai Urteaga eta bai euren esperientzia kontatu diguten lau gazteak. Arazoa itzultzeko aukera gutxi izatean datza edo bueltatzeak maiz norberaren ibilbide profesionala sakrifikatzea dakarrela. Lau gazteak ez dira damu hartutako erabakiaz, baina mesfidantzaz mintzo dira sorterrirako itzulera.

Atzerriratzea ez da txarra, berez. Arazoa itzultzeko aukera gutxi izatean datza edo bueltatzeak maiz norberaren ibilbide profesionala sakrifikatzea dakarrela

ENERITZ TRIGUEROS, Austrian:

«Atzerritarrak tratatu izan ditugun modu berean tratatzen gaituzte»

IAZKO ABENDUAN arkitektura ikasketak bukatu ostean, lanbide horretan %50etik gorako langabezia tasa zegoela ikusita abiatu zen kanpora Eneritz Trigueros durangarra: “27 urterekin, nik neuk irabazitako dirua izateko

beharra neukan eta lan egoera egonkorra lortzeko aukera bakarra atzerrira joatea zela konturatu nintzen”. Vienen hartu zuen lur eta hasierako hiru hilabeteak arkitektura estudio batean eman zituen, egunean zortzi orduz praktketan, aldi berean lana bilatzen zuen bitartean. Zorionez, dio, praktikak bukatu eta hurrengo astetik lanean dihardu Linz hirian.

Kanpoan bizitzea zaila dela aitortu digu durangarrak. Diferentzia kulturalak egunerokoa oztopatzen dute eta gauzak ondo ez doazenean gertukoenen babes falta nabaritzen da. Vienen Europa hegoaldeko gazte ugari daudela dio, asko egoera kaskarrean. “Oztopo nagusienetakoa kanpotarra izatea da, guk atzerritarrek tratatu izan ditugun modu berean tratatzen gaituzte”. Alokairu baterako, adibidez, nahiago dute austriar bat, bera baino.



Eneritz Trigueros (goiko irudian) eta Arantzazu Agirre.

Oraingoz ez da jarri itzulerako egunean pentsatzen, Euskal Herrian arkitekto gisa lan egiteko aukera gutxi dituelakoan. Etxean dirurik ez eskatu eta independente izateko helburua laster beteko du, baina bestelako bizi-proiektuak zail ikusten ditu. “Ez dut neure burua inon finko ikusten, beraz, aukerak sortu ahala joango naiz etorkizuna erabakitzen”.

ARANTZAZU AGIRRE, Irlandan:

«Egungo egoeran, ezin da finkatu urte askoan bizi proiektu bezala ezagutu duguna»

HAUR HEZKUNTZA ETA PSIKOPEDAGOGIA ikasketak amaitu eta hainbat hilabete lanik gabe igaro ostean, egunkariko iragarki bati kasu eginez *au-pair* bila zebilen familia baten-gana zuzendu zen Arantzazu Agirre oñatiarra. “Nire helburua ez da horrela lan egitea, baina aukera polita izan zitekeela pentsatu nuen, bai bidaiatzeko, baita ingelesa ikasteko ere”. Argi ikusten du erabakia hartzera ez zuela egoerak behartu, unean uneko aukerak aprobetxatzeko gogoak baizik. Esperientzia aberasgarritzat du kanpoko egonaldia: “Familia eta lagun giro segurutik urrun, zure burua egoera berrietan jartzea beti da positiboa, une gogorrak bizi arren”.

Emigratzea irtenbide bakar bihurtzen denean, ordea, esperientzia asko okertu daitekeela uste du. “Jendea jakitun da beste herrialde batera lana aurkitzera joatea ez dela batere erraza”. Egungo egoeran, ezin da bizi proiektu zehatzik finkatu, Agirreren esanetan, “ez behintzat urte askoan gehiengoak bizi proiektu bezala ezagutu duguna; lana, etxea, familia ...”. Helburu horiek oso urruti ikusten ditu, “ezinezko”. Posible den arte, loturarik gabe egoteko askatasuna aprobetxatzea tokatzen dela dio.

XABIER AGIRRE, Indian:

«Atzerrian hartutako esperientziak lana aurkitzen lagunduko didan esperantzaz itzuliko naiz»

XABIER AGIRRE donostiarrak Enpresa Zientziak eta Ingeniaritza Teknikoa ikasi zituenetik, bi urte daramatza etxetik kanpo, Eusko



Jaurilaritzako beka batekin. Esperientzia berrien eta lanpostu baten bila abiatu zen atzerrira. Lehen urtea Indonesian igaro zuen, aurtien berriz, Indian da. “Euskal Herrian lan eskaintza handiagoa egon balitz, zailagoa izango zen erabakia hartzea”. Egoera hark bultzatu zuen kanpora, baina ez du damurik hartutako erabakiaz.

Euskal Herriko Rinder enpresak Indian duen lantegian ari da egun, denetariko egin-beharrak betetzen: marketin lanak, kostuen kontrola, herrialdeen azterketak... India une interesgarrian ikusten du donostiarrak, mugimendu ekonomiko, politiko eta sozial indartsuz. Bekako diruak beti hil amaierara iristeko adina ematen ez duen arren, Agirrek dio eroso bizi dela eta aukera izan duela zenbait bidaia egiteko. Galdutako gauzen artean, bozkatzeko eskubidea aipatu digu; “ez du behar bezain ondo funtzionatzen horrek”.

Ondo formaturiko belauinaldi bat galtzeko arriskua ikusten du donostiarrak, eta aktiboago eta lan aukerak sortzen ikusi nahiko lituzke gazteak. Beka amaituta, urtea bukatu aurretik bueltan izango da ingeniaria. Lagun

Xabier Agirre lagun batekin, eta Melani Zendoia.

eta senideek kontatu diotenagatik, ez du uste lan aukerak hobetu direnik, baina hala ere, baikor begiratzen dio geroari. Atzerrian hartutako esperientziak lana aurkitzen lagunduko dion esperantzaz itzuliko da, “pixkana bizi proiektua aurrera eraman ahal izateko”.

**MELANI ZENDOIA,
Kolonbian:**

«Nire egoera ekonomikoa ez da batere hobetu, alderantziz»

IKASKETAK bukatu osteko lan panorama ikusita erabaki zuen Melani Zendoia zarautzarrak atzerriratzea. “Denboraldi baterako izan behar zen, baina Kolonbiara iritsi bezain pronto herrialdeaz maitemindu nintzen”, aitortu digu. Psikologoa da eta orain baita okindegi bateko “enpresari txikia” ere, bizileku duen Cartagena de Indias hiriko auzo gatazkatsuenetako batean. Okindegia jarri du han martxan, bertako jendeari lana eman asmoz. Hori gutxi ez eta umeentzako ludoteka bat ere abiarazi du. Izan ere, diru sarrerak oso mugatuak eta gastuak izugarriak direla azaldu digu: “Osasun zerbitzua ordainpekoa da, eskola publikoak oso xumeak dira eta pribatuak erabat arrazistak, ez dago garraio publikorik, ezta urik ere, eta argia astean bi-hiru bider joaten da. Nire egoera ekonomikoa ez da batere hobetu, alderantziz”.

Arrazoi ekonomikoengatik kanpora joatea “soluzioa baino, ihesbidea” dela dio. Politika egokiago batek asko lagunduko lukeela uste du Zendoiak, baina bitartean, gazteek trebatzen jarraitu behar dutela gaineratu du.

Cartagenari hartu dion maitasuna, ordea, ezin ezkuta dezake zarautzarrak, “etengabeko amodio-gorrotoa” dela esan arren. “Herrialde honek badu zerbait zoragarria, ereiten duzun guztia hazi egiten da. Hainbeste dago egiteko!”. Jendeak ideia eta proiektu berrietan sinesten duela dio. “Euskal Herrian gazteoi ez digute berritzen irakasten, lanik ez izateko arriskuaren aurrean betikoa egitera bultzatzen gaituzte”. Gogorragoa izanagatik ere, gehiago asetzen du Kolonbiako bizitzak. Oraingoz, beraz, ez da itzuliko. Epe luzera begiratzea ez du atsegin, baina etorkizunean enplegu anitzetan murgilduta ikusten du bere burua. Gaur hemen, bihar han. ■



Osakidetzan aritzeko zerrendan egoteak bizitza baldintzatzen dizu

Ainhua Rekalde dut izena, 22 urte ditut eta erizaintza ikasketak bukatu nituen pasa den ikasturtean. Lan egiteko noiz deituko zain nagoen bitartean, espezializatzeko ikastaroak egiten ari naiz, noizbait lanpostu finkoa izateko itxaropenez.



IRUÑEKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN bukatu nuen Erizaintzako Gradua, pasa den uztai-lean. Osakidetza eta Osasunbideko zerrenda publikoetan izena eman eta tarteka lan apur bat egiteko aukera izan dut. Udan eta Gabonetan badago lanposturen bat lortzeko aukera, baina urtean zehar oso zaila da; eta lortzekotan, oso kontratu laburrak izaten dira, egun gutxi batzuetakoak. Gainera, noiz hasi behar dugun esaten digute, ez ordea noiz arte izango garen bertan.

Edozein unetan dei gaitzaketenek, ezinbestekoa da mugikorra beti soinean izatea. Ni ez nago horretara batere ohituta, eta kosta egin zait egokitzea. Ezezkoa emateko ere, beharrezkoa da justifikatu dezakegun arrazoiren bat izatea. Hortaz, zaila da, esaterako, beste lan batean hastea. Aurretik abisatuz gero bolada batez ez deitzeko eska dezakegu, baina epe luzera osasungintza publikoan lan egin nahi badugu, lehenago edo beranduago uko egin behar diegu beste lan horiei. Eta noski, deiak oso noizbehinkakoak direnez, ia ezinezkoa da Osakidetzan egindako lan apurrarekin gure bizitza antolatzeko adina diru irabaztea.

Gainera, ez da erraza zerrenden logika ulertzea. Bost omen dira guztira, eta hamaika ate jo ditudan arren, oraindik ez dakit zehaztasunez zein irizpideren arabera egiten duten sailkapen hori. Irregularitasunak ere egon badaude: uda honetan bertan zerrendetan nire aurretik zegoen beste bati baino lehenago deitu zidaten, eta ziur asko, kontrakoa ere gertatuko zitzaidan inoiz, ni konturatu gabe.

Horri guztiari, erizain-gaion arteko lehia-kortasuna gehitzen zaio. Lanpostuak muga-

tuak direnez, ikastaro, eskaintza eta abarren inguruko informazioa norberarentzat gordezten dute askok, horrela lana lortzeko aukera gehiago izateko. Batere gustatzen ez zaidan beste kontu bat ikastaroena da. Espezializatu eta zerrendetan gora egin ahal izateko, ordainpekoak diren formazio kurtsoak egiten ditugu. Azken finean, puntuak erosteko sistema bihurtzen dira ikastaro horiek, eta ia denok ematen dugu izena, bestela, gainontzekoek aurre hartzen digute. Murrizketen eragina ere nabaritzen dela diote lanean gu baino gehiago daramaten erizainek. Orain, ezinbestekoa ez bada ez dute inor kontratatzen, eta egoera larritu arte itxaroten dute. Dena dela, ni Italian izan nintzen Erasmus programaren baitan, eta Euskal Herrian han baino askoz ere osasungintza duinagoa dugula aitortu beharra dago.

Bitartean, badira beste alternatiba batzuk. Esaterako, osasungintza pribatuan lanpostu bat eskuratzen ahalegintzea. Diotenez, ez omen da zaila lana aurkitzea, baina kasu horretan ere osasungintza publikotik urruntzeko arriskua dago. Atzerrira joateak ere ideia ona dirudi. Badira joan aurretik lana lortzen laguntzen duten agentziak, eta lan baldintzak duinak dira oro har Europa iparraldeko herrialdeetan. Kasurik onenean, bertako osasungintza publikoan sartuz gero, esperientzia horrek balio du Osakidetza balioko oposaketetarako ere. Baina beste herrialde batera bakarrik joateko prest egon behar duzu. Hurrengo urtean, lasaiago, erabakiko dut komeni zaidana zer den. ■





**June
Fernández**

★
KAZETARIA

Funtsezko adostasunak

ALDERDI EDO ERAKUNDE ezkertiarren arteko desadostasunen eta zatiketaren karikatura egiteko *Brianen bizitza* filma erabili ohi da: Judeako Populuaren Fronteko kideek azaltzen dutenez, erromatarrak baino Judeako Fronte Popularreko kideak gorroto dituzte gehien. “Disidentek!”.

Feminista gaztea izanik, sarri entzun ditut 80. hamarkadako feminismoari buruzko komentario nostalgikoak: “A ze garaiak! Ehunka emakumek parte hartzen zuten emakume asanbladetan eta manifestazio jendetsuak antolatzen zituzten!”. 90. hamarkadan, abortuaren despenalizazio partziala, dibortzioaren onarpena eta berdintasunaren aldeko erakundeen jaio-tza finkatuta zeudelarik, nolabaiteko demobilizazioa egon zen. 80. hamarkadan jaiotakook “berdintasunaren ameskerian” hazi ginen, borrokarako arrazoi argirik ikusi gabe, patriarkatua eraldatzen eta berritzen zihoan bitartean.

Gallardónen dimisioaren ostean, helburu konkretuen aldeko sareen elkarlana mantentzea izan beharko genuke helburu, garaipen feminista berriak lor ditzagun. Horretarako ez daukagu zertan ados egon beharrik gai guztietan. Hori izan da ‘Pikara’ aldizkariaren abilezia

2007. urtean murgildu nintzen Euskal Herriko mugimendu feministan: talde ugari zegoen, eta desadostasun ideologikoen ondorioz, elkarlanak eskasa eta desatsegina zirudien. Batzuentzat, mugimenduaren zatiketa kezkarria zen. Medeak edo antzeko mugimenduko gazteek, ordea, egitura eredu berriak aldarrikatzen zituzten: lagunen artean edo pertsona bakarrez sortutako “nodo” txikiez osatutako eta interneten bidez konektatutako sareak. Alberto Ruiz-Gallardónek abortuaren legearen kontra egingo zuela agindu zuenean, ulertu genuen ez zela barne eztabaidekin jarraitzeko momentua, lehentasuna kontserbadoreen erasoei elkarrekin aurre egitea zela.

Abortatzeko eskubidearen aldeko plataforman bildu ginen feminista anitz: gazteak eta helduak, abertzaleak eta etorkinak, lesbianak eta *queerak*, eta lan dotore egin genuen elkarrekin. Prozesu horretan, gure arteko ezagutza eta konplizitatea indartu genituen. Gallardónen dimisioaren ostean, helburu konkretuen aldeko sareen elkarlana mantentzea izan beharko genuke helburu, garaipen feminista berriak lor ditzagun. Horretarako ez daukagu zertan ados egon beharrik gai guztietan. Hori izan da *Pikara* aldizkariaren abilezia, hau da, argi izatea gure arteko desadostasun ideologikoak ez direla oztopo proiektu bateratua bideratzeko. Hala gurera askotariko irakurle erakarri ditugu eta.

Orain dela gutxi estatu mailako emakumeen kongresu batean egon nintzen eta helduen eta gazteen arteko mesfidantza eta errespetu eskaseko jarrera mordoa antze-man nituen. Helduek gure freskotasuna ospatzen zuten komentario paternalistekin, baina ez zuten gure ekarpenak arretaz entzuteko eta barneratzeko —hau da, gure diskurtsoez ikasteko— asmorik adierazten. Onartu behar dut, gazteok askotan era bortitzean esaten diegu euren diskurtsoak zaharkituak daudela. “Klasikoak”, “behi sakratuak” edota “dinosauroak” bezalako ezizenak erabiltzen ditugu eurekin.

Kongresuan argazki bat atera zidaten Komiki Egileen Elkarteko (Asociación de Autoras de Cómic, AAC) Elisa McCausland eta Susanna Martinekin, eta Twitter bidez zabaldu. Honako txioa jaso genuen: “Belaunaldi berriei lekua utzi behar zaie, oso argiak zarete eta”. Susanna Martinen erantzuna asko gustatu zitzaidan: “Hobe lekua konpartitzen badugu, zabaldu dadin”. Erreleboari buruz hitz egiten badugu, ez nau harritzen helduek euren lekua sutuki defendatzeak, ezta gu mehatxu bezala ikustek ere. Aniztasunaren aldeko defentsa egiten du feminismoak, baina gero kosta egiten zaigu gure antolakuntzan aniztasun hori aberasgarria dela ulertzea eta ikasteko aprobetxatzea. Halakoetan beti ideia ona da *Brianen bizitzaren* eszena berrikustea. ■





baina joselico! zer margoTu duK ??



Honetaxe,
errealitatea
den bezalakoa
ageri da...



...ala ez?

Jakes Bortairu



DANI BLANCO

Euskal Herria TAFTAz kanpo?

EUROPAKO BATZORDEA hasia da 2013ko uztailetik Atlantikoaren bi aldeen arteko komertzio eta inbertsioei buruzko itun proiektua (ingelesez TAFTA) AEBekin negoziatzen, 28 estatuen izenean eta sekretu osoan. Horren helburua sinplea da: bi kontinenteen arteko komertzio eta inbertsioei oztopo oro desagerraraztea. Ez soilik hainbat sektore babesteko gelditzen diren aduana zergak, konkurrentzia traba lezaketen edozein sozial, osasun edo ingurumen arau eta lege baizik. Hots, itsasoaren bi aldeetako norma apalenak eredu bezala ezarri nahi du.

Gaur egun, kapitalismoa jotzen duen krisi larria estakuru, oraino liberalizazio gehiago inposatu nahi digute, inbertsio egileen eskubideak herrietako hautu demokratikoen eta estatuetako erabaki publikoen gainetik kokatuz. Zertan eragin lezake European? Hormonez ekoiztutako haragi eta esnea, Jitez Aldaturiko Organismoak (JAO edo GEO) edo Genetikoki Eraldatutako Organismoak, kloroz garbituriko hegaztiak, debekatzeko arauak altxatu beharreko trabak bilaka daitezke. Eskisto-gasa ustiatzeko debekua, ilegala. Ekonomia berlokalizatzeko edota klima aldaketa gelditzeko neurriak, gisa berean itun horren jomuga bihurtuko lirake. Alderantziz European ez bezala, AEBetan

dauden finantza erregulatzeko lege batzuk desagere litezke. Are gehiago, multinazionalak eta estatuen arteko auziak trenkatzeko, itun horrek epaitze mekanismo pribatuak sor litzake. Horrelako kasuetan, "aditu" batzuek inbertsio egileen interesak edo irabaz itxaropenak kaltetuak diren ala ez erabakiko lukete, estatuei, beraz herritarrei, alimaleko isunak inposatuz. Adibide

batzuk baditugu jada: Vattenfall suediar enpresak Alemaniako Gobernua atakatu du haren parke nuklearra gelditzeagatik. Quebec-eko Gobernua auzitan eman du energia konpainia batek gas ustiakuntza suspenditu duelako.

Europar herritarrek ez dakite 2016ra arte segituko duten negoziaketak zertan diren, ezta diputatuek ere zertaz diren, aldi berean, enpresa handien lobbyak etengabe kontsultatuak direlarik. Duela zenbait urte antzeko proiektu batek (AMI, Inbertsioei buruzko alde askotako akordioa) porrot egin zuen iritzia publikoak bere edukia ezagutu bezain laster. Erronka argia da beraz, eta European

herritar kolektibo, sindikatu eta mugimendu franko informazio eta mobilizazioetan hasiak dira. Helburuetarik bat, udalak TAFTAz kanpo deklaratzeko da. Euskal Herriak desafia altxatuko ote? ■

Egun kapitalismoa jotzen duen krisi larria estakuru, oraino liberalizazio gehiago inposatu nahi digute, inbertsio egileen eskubideak herrietako hautu demokratikoen eta estatuetako erabaki publikoen gainetik kokatuz



DANI BLANCO



Edu Zelaieta

IDAZLEA

Lucia

NERABEZAROAN ezagutu zenuen Lucia, haren familia Bilbotik Gasteizera aldatu zenean. Hiru urtez izan zineten gela bereko ikaskide, eta, gogoan duzenez, sasoi hartako musika talde batzuekiko zaletasuna partekatzen zenuten. Aspaldi-ko partez topo egin duzu gaur goizean Luciarekin, autobusaren esperoan zeundela.

Hamabost bat minutuko solasaldi bizia izan duzue. Elkarri agur esan eta gero jabetu zara ez dutela haren begiek garai bateko sua galdu; horregatik egiten zitzaizun hain erakargarri institutuan. Ausart izaten segitzen du: lan-katea batean hogeitaz urte egin

ondoren erabateko iraulia eman dio haren bizitzari. Ez omen zegoen bertan gaizki, baina hutsik-edo sentitzen omen zen fabrikako errutinan. Begiak txinpartaka esan dizunez, lehendik zuen ametsari heltzea erabaki du: biodantza-irakasle izateko hiru urteko formazio bat egiten ari da iaztik, etxekoan –bikotekidearen eta alabaren– laguntzaz.

Umore-aldagarri gertatu zaizu Luciarekin izan duzun ezusteko enkontrua; aurretik duzun egunarekin adiskidetu zaitu, nolabait. Egiazko istorio horiek ere osatzen dute gure mundua. ■





Bixente Serrano Izko

♦ IDAZLEA ETA HISTORIALARIA

Nafar errealitate instituzionalaz

AUZITEGI KONSTITUZIONAL BAT, Konstituzioa betetzen den begiratu beharrean, Konstituzioa bortxatzeari ekiten diona, ekimen demokratikoak krimenez jotzeko. Alderdi sistema bat, Konstituzioaren aurrean demokratikoki kritiko agertzen direnak satanizatzen dituen, baina Konstituzioa ez betetzea bere helburu nagusi aldarrikatuz jaio zen alderdi bat (UPN) gozogoza babesten duena alderdi konstituzionalista gisa.

Merezi du, merezi duenez, UPNren anti-konstituzionalismoa nabarmentzea, testu-liburuen inguruko afera berrian, alegia, gure Iribas inefableak erabakirikoaren harira. Askok hitz egin dute kultura-astakeria honetaz, baina inon ez dut ikusi espainiar konstituzioaren aldeko argumenturik. Badakit tabu bat dela, guztiz heterodoxo, mundu abertzalean konstituzio horretan oinarritzea NFE-EAEn artean harreman berezietarako eskubideen defentsan. Are gehiago, jakina, Auzitegi Konstituzionalak bere egin duen misio bitxia, goian aipaturikoa, kontuan harturik.

Ba, espainiar konstituzioak —oso eztabaidagarria, zer erranik ez, demokrazia kontzeptu sano baten aldetik— onartzen du bere testuan eta espresuki zerbait berezia dagoela NFE eta EAE artean, noraino eta bide bat diseinatzeraino egunen batean, nafarrok horrela nahi izanen bagenu (“geure burutik joanak” suertatuko bagina), erkidego autonomo bakarra osatzeko bion artean. Eta EAEn bakarrik, ezen ez, demagun, Errioxarekin edo Aragoirekin edo Gaztela-Leonekin.

Hau da, babes konstituzional zehatza du nafar gizartearen bada-goela zerbait berezia ikustarazteko nahiak, kritiko agertu ahal izateko gaurko euskaldunon zatiketa autonomikoan.

Aitortza horrekin batera, badakigu, konstituziogileek discinatu zuten bidea oztopoz bete egin zuten, nahita, jorratu ezina geldi dadin. Baina aitortza berezia hor dago, Konstituzioan. Guztiz konstituzionala da, hortaz, NFEko hezkuntza sisteman EAE eta NFEren arteko lotura kultural, historiko eta politiko-instituzionalak agertzea, hezkuntzaren helburuetako bat

Guztiz konstituzionala da NFEko hezkuntza sisteman EAE eta NFEren arteko lotura kultural, historiko eta politiko-instituzionalak agertzea

herritar kritiko, autonomo eta ongi informatuak sortzea baldin bada, eta ez dut uste hezkuntza-helburu honi Iribasek uko egiten dionik, bere itsukeria inefablea gorabehera.

Lotura eta aitortza berezi hau, UPNk aitortu nahi ala ez, nafar errealitate instituzionalaren parte da, eta espainiar konstituzioaren aurka doa Iribasen agindua, horratx! Baina badakigu, konstituzioaren aurka sortu zen alderdi konstituzionalista hau. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Topatu



UZTARRIA.COM

Eneritz Artetxe



Doinua: Agur sagar beltzaran.

“Ospatu nahi delako
Ernairen sorrera
Milaka gazte daude
Urduñan batera,
irudimena eta
gogoa sobera”
Ikusi nahi ez dena
emanez parera
zein arma ona izan
daitekeen kamera.

Topatu da amets bat
posible egitea
proiektu berritzaile,
bizi ta gaztea
tresna bat ilusioz,
edukiz betea
sari bat jasoz hasi
zuen urtea
ta kolpatzea ez da
kasualitatea.

Iraultza txikienak
handi bilakatzen
herri guztietako
altxorak topatzen
gazte mugimendua
sarean zabaltzen
iragana gogoan
ta geroa lantzen
jarrai ezazuela
oraina kontatzen! ■



Josu Aztiria Urtaran

♦ ELHUYAR HIZKUNTZA ETA TEKNOLOGIA UNITATEAREN ARDURADUNA



Euskararen gizarte-erakundeon etorkizuna: palankak eta balaztak

EGUNEROKO URGENTZIA eta estatusunetik ihes egin ez, euskararen garapena xede dugun gizarte-erakundeon eta erakunde publikoen bide-orri eta agenda estrategikoetan kontuan hartu beharreko hainbat iradokizun egiten ausartu naiz leerro hauetan.

BERRIKUNTZA SOZIALA. Aholkularitza, kudeatzaile eta esparru akademikoaren klise berri bihurtu da berrikuntza soziala, baina, zer den galdetuta, gutxi daki ondo. Orain aste batzuk, Gorka Espiau etorri zen Hernaniko Orona Ideora, Elhuyarrek antolatutako jardunaldira, eta definizio argigarri hau eman zigun: "Gizartea eraldatzen duten ideia, proiektu eta produktu berriak martxan jartzea da berrikuntza soziala". Kliseak klise, euskararen gizarte-erakundeon jardueran ikuspegi hori barneratzen badugu, aukera asko irekitzen zaizkigula esango nuke.

Berrikuntza disruptiboz jositako historia aberatsa izan da euskararen berreskurapena (euskararen estandarizazioa, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatzea, hedabideak, hizkuntza-teknologietan egindako urratsak...), baina azken urteetan berrikuntza inkrementalean mugatuta gaudela esango nuke

INKREMENTALA EDO ERRADIKALA. Bi berrikuntza-mota daudela esaten du teoriak: inkrementala aldaketa txikiz ehundutako berrikuntza da; disruptiboa edo erradikala, aldiz, merkatu edo gizarte-eremu baten jokalekua erabat aldatu eta eraldaketa sakona dakarrena da. Berrikuntza disruptiboz jositako historia aberatsa izan da euskararen berreskurapena (euskararen estandarizazioa, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatzea, hedabideak, hizkuntza-teknologietan egindako urratsak...), baina azken urteetan berrikuntza inkrementalean mugatuta gaudela esango nuke. Logikoa da, baina iruditzen zait disruptzio-logikan jarri behar dugula berriz indarra, euskararen garapena eta gizartearen eraldaketa bul-tzatzen jarraitzeko.

IKERKETA ETA GARAPENA. Berrikuntzak, soziala eta teknologikoa inkrementala edo disruptiboa izanda ere, ikerketa eta garapena izan behar du oinarri. Nola lortuko ditugu euskarazko produktu berritzaile eta erakargarriak? Nola bermatuko dugu euskara digitalki osasuntsu egotea, ikerketarik eta garapenik gabe? IKT laguntzetan izan diren beharrek, 2014an Saiotek deialdia bertan behera geratu izana, eta Euskal Zientzia eta Teknologia Sarearen berrantolaketa berriaren ziurgabetasuna ez dira batere sintoma onak.

SROI METODOLOGIA (*Social Return Of Investment*). Egindako inbertsio eta jarduerak gizarteari emandako etekina neurtzeko sistemari deitzen zaio nolabait. Mundu anglosaxoian asko zabaldu da, eta badugu nondik ikasi. Zertarako? Ikusezinak izateari uzteko eta gizarteari egiten diogun ekarpen soziala eta ekonomikoa objektibatzeko.

ASKOTAN ESANA. Esan bai, baina gutxitan praktikan jartzen duguna. Kilometro karratu gutxiren barruan zenbat enpresa eta erakunde ari gara bezero berberei produktu eta zerbitzu oso antzekoak eskaintzen? Ikerketa-proiektu berdinak edo oso antzekoak aurkezten? Eta produktua ez bada bideragarria, denak itzulpenak egiten hasi, tarifak jaitsi, eta kuotatxo eskuratzen... Baina, horrela, merkatua ez da haziko, elkarri tokia jaten diogu, eta marjinak jaitsi egiten dira. Epe luzera, guztion kalterako. Hekimen eta Langune jaio dira, baina elkarlanean bada zertan sakondu.

EROSLE-LOGIKATIK INDUSTRIA-LOGIKARA. Ez gara gu ikuspegi-falta dugun bakarrak. Adibide argiak ditugu euskal administrazioan erosle-logika sektore ekonomikoa indartzeko estrategiari gailendu zaiola esateko (itzulpene automatikoan edo ahotsaren teknologietan, esaterako). Aldeak alde, inork imajinatzen du Euskotren CAFenak beharrean Alstom-en trenak erosten? Baliabide-hornitzailearen bigarren mailako papera jokatzeko edo hizkuntza-teknologiaren sortzaile eta garatzaile izatea, hori da hautua. Ni, behintzat, bigarrenaren alde, baina, horretarako, ezinbestekoa da guztiok ere hori sinestea. ■





GEHIEGIZKO MEDIKALIZATZEAZ **Osasun publikoaren mitoak**

- **MAMOGRAFIAK** (Peter Goztsche) • **KOLESTEROLA** (Michel Lorgetil)
- **OSTEOPOROSIA** (Guillian Sanson)
- **PROSTATA** (Christophe Desportes, Nicole Delepine)
- **PREBENTZIO KANPAINAK** (Claude Beraud)

Hark erabaki aurretik, galdetu zure medikuari



**datorren
asteen**

«Zenbait estereotipotatik ihes egin dut»

Zuloak taldeak emandako azken kontzertutik urtebetera, bakarkako ibilbideari ekin eta lehen diskoa aurkeztu digu Tania de Sousak: *Tania Tank* (Talka Records, 2014). Lan eklektiko eta anitza egin du Zuloak taldeko abeslari ohiak, rock kutsua galdu gabe baina pop eremura jauzi ausarta eginez, batzuek espero zutenaren kontra. Musika eszenan luzaroan gelditzeko asmoa igartzen zaio.

| MYRIAM GARZIA |

Tania Tank diskoarekin ekin diozu zure bakarkako ibilbideari, nolakoa da aurkezpene hau? Bilatzen zenuena aurkitu duzu?

Oso zaila da bilatzen duzuna aurkitzea, baina uste dut lehen baino gertuago nabilela. Nire soinua ateratzen ari dela uste dut, nire ahotsa den bezalakoa da diskoan, artifiziorik gabekoa. Musika aldetik ere mugak apurtu ditut, edozertan ausartzen naizelako, eta niretzat plazer bat da.

Kolaborazio apartak izan dituzu: Mursego, Mikel Aizpuru, Koldo Soret, Xabier Solano, Fermin Muguruza... Musikariok ondo ezagutzen dituzu gehienak.

Bai. Egia esanda, horrelako kolaborazioek kolorea ematen diote lanari. Zorte handia izan dut horrelako jendea nirekin aritu delako. Musikari apartak direlako eta kante bestedimentsio bat hartzen dutelako.

Disko hau tarteko, iraultza ala bilakaera izan da zure musika ibilbidean gertatu dena?

Argi dago nire ibilbidean aldaketa handia gertatu dela, orain arte egin dudanarekin aldera-



tuta. Sekulako askatasuna eman dit jauzi hori egiteak. Azkenean, zenbait estereotipotatik ihes egin dudalako, eta nire soinuz jabetu naizelako.

Proiektua zeurea bada ere, taldea ere osatu duzu disko honetarako, Maitane Alonso (baxua), Fermin Bouza (gitarra) eta Ander del Solekin (bateria). Zein izan da euren ekarpena diskoan?

Fermin Bouza funtsezkoa izan da disko honetan, hari pasa nizkiolako nire kanta konposatu nitueanean. Berak landu egin zituen, eta diskoan entzuten den azken soinua eman die. Bestalde, Maitanek estilo oso berezia dauka baxua jotzean, teknika ederki menderatzen du eta eskenatokian presentzia handia du. Ander oso elegantea da, egurra ematen dio bateriari. Uste dut talde polita sortu dugula.

Punk-rock-etik Pop-rock-erako urratsa eman duzu, ahotsak ere beste tratamendu bat dauka, melodikogoa da.

Bai. Lehen aipatu dudana bezala, artifiziorik



gabe ageri da. Azkenean nire lekua aurkitu dut, ez dut ahotsa behartu beharrik, horixe baita nire ahotsa. Poperako ahots aproposa daukat eta hori indartu behar dut.

Urtea joan da Zuloak emandako azken kontzertutik. Denbora tarte horretan bi disko plazaratzeko denbora izan duzu, The Dispositives-ekin egindakoa batetik, eta oraingo bakarkako disko hau. Sormenak ez du krisirik.

Tira, ez pentsa, kosta egiten zait kantak konposatzea, edo ondo dagoena baloratzea. Zerbait egiten dudanean ontzat hartzea sekulako ahalegina da niretzat. Erdipurdiko lan asko egin behar du artistak merezi duen kanturik sortzen duen arte.

Tania de Sousa
(eskuinean) eta bere
taldekideak.
Ezkerretik hasita,
Ander del Sol,
Maitane Alonso eta
Fermin Bouza.

Talka Records argitaldaria editatu du *Tania Tank*. Zure leku naturala horixe dela dirudi. Ferminnek berak ere gomendatu zizun bakarkako ibilbideari ekiteko.

Bai, egia esanda sostengu hori izan ez banu ez dakit non egongo nintzatekeen. Argi dago izaten ari naizen proiektzioa Fermini eta bere lan-taldeari esker dela, eta bizitza osoan esker ona besterik ez dut izango haientzat.

Musikari bezala, non ikusten duzu zure burua hemendik hainbat urtera?

Musika egiten jarraitzea espero dut. Oso mundu zaila da, eta dena okerrera doa, nahiko ezko-rra naiz, baina tira, itxaropena da galtzen den azkena. ■



Kanporaketak

bizkaiko bertsozale txapelketa

Gautegiz-Arteagan, urriaren 19an, 17:30ean, herriko frontoian

Aitor
Arrutia
Azueta

Inazio
Vidal
Gurutxaga

Itxaso
Paia
Ruiz

Josu
Landeta
Egurrea

Lander
Ibarluzea
Bihandi "Aitzolua"

Oihana
Bartra
Arenas

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

Dantzaren alderdi soziala berreskuratzeko urratsa

Aiko taldeak duela 7 urte ekin zion Dantzaldi Ibiltariari, eta dagoeneko, 2.000 dantzari eta dantzazale hezi eta bildu ditu euskal dantzen inguruko ekimen honetan. Aurtengo edizioak berrikuntza dakar, esate baterako, EHUKo Irakasle Eskolako ikasleei zuzendutako mintegi berezia. Ohiko bilakatu diren ikastaroak Bilbo, Donostia, Galdakao, Durango, Ondarroa, Markina, Gernika, Sopela eta Iruñean izango dira. Bilboko Bizkaia aretoan egingo dute ikasturte osoko saio irekia, hasiberrientzat zein esperientzia dutenentzat. Erriberako Merkatuan, bestalde, erromeria egingo da ostiralero.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Aiko Taldea

SABIN BIKANDI Aiko musika taldeko kide dugu, eta Dantzaldi Ibiltariaren sortzailetako bat. Londreseko Unibertsitatean doktoratu zen Etnomusikologian, eta Bilboko Udal txistularien Bandako danbolin jotzaile eta musikagilea da; bereak ditu Aiko musika taldeak jotzen dituen kanta gehienak. 2008an ekin zioten Dantzaldi Ibiltariaren programari, eta ordutik 2.000 dantzari hartu dituzte ikastaro, tailer eta mintegietan. “Baina hori ez da gure liga” dio Bikandik, “ez gaude kopuruari begira. Badakigu zein den gure lekua. Pozik gaude, gero eta baliabide gehiago baititugu eta zaletuak ere gero eta gehiago baitira, batez ere, gu bezala, gozatzera heltzen direnak. Dantzaldi Ibiltaria zabaltzeko aukera izan dugu, gero eta jende gehiagok babestu duelako ekimena”.

Aikoren Dantzaldi Ibiltaria herrietan eskaintzen ziren ikastaroekin hasi zen duela 7 urte. Ordutik, hazi eta hazi. Egun, Bilbon ez ezik, Donostian eta Iruñean ere egingo dira ikastaroak, eta “hori inportantea da”, Bikandiren aburuz, “Bilbon Bizkaia aretoak eskeintzen digun espazioa eta ekipamendu duina izatea ere garrantzitsua den bezala”. Donostian Victoria Eugenia antzokian ematen dituzte saioak, Ondarroan Bekozini areto zabaldu berrian, eta Durangon Plateruena Kafe Antzokian.

Baso erdi batzuk hartuz edo ikasleak batzeko egiten diren bazkarietan eta erromerietan elkartzeak ekimen sozial bihurtzen dute Dantzaldi Ibiltaria. “Dantza soziala da



Sabin Bikandi Aiko musika taldeko kide eta Dantzaldi Ibiltarearen sortzailea, txistua jotzen.

guretzat, harremanetarako egiten dena. Betidanik, elkartzeko gunea izan da erromeria. Ospakizun hori apur bat aldatu bada ere, elkartzeko eta harremanetarako proposamena da gurea. Egungo gizarteak bakarrik bizitzera bultzatzen gaitu, eta elkarrekin egoteko, hitz egiteko edo parrandarako guneak sortzea da Dantzaldi Ibiltariaren helburu nagusia”, dio musikariak.

Aikoren saioak euskara hutsez izaten dira eta bertaratzen diren gehienak euskaldunak badira ere, “sentsibiltate desberdineko jendea



naturalki biltzea lortzen dugulako, harridura erakutsi izan digute euskara teknikariek. Katalanak eta alemaniarrek ere badira gure artean, eta hori ere onuragarria da euskaldunontzat, bakarrik ez gaudela sentiarazten digulako. Gu bezain zaletu direnak ere badirela ikusten dugu eta hori jakitea gauza polita da”.

**Aiko taldea,
Otxandioko
erromerian.**

Dantza irakasle berriak

Aikok eta EHUK akordioa sinatu berri dute, Leioako Irakasle Eskolako Graduiko ikasleei zuzendutako mintegia sortzeko. Horren bidez, etorkizuneko irakasleak euskal dantzan eta musikan trebatuko dituzte. Musika eta dantza tradizionala kultur ondasuntzat sustatzea da Aiko eta EHUren arteko akordioan ezarritako helburuetako bat, folklorearekin lotutako eza-gutzaren transmisioan lagunduz eta kultur ondare tradizionala mantenduz, grabazio, partitura, musika-tresna, jantzi eta gainerakoen bilketa, zainketa eta zabalkuntzaren bitartez. Era berean, ekimen honen bidez, euskal musika eta dantza tradizionala aisialdirako jarduerak normalizat har dadin nahi da. Irakasle Eskolako ikasleentzat espresuki egindako ikastaroa bada ere, zabalik egongo da beste fakultateetako ikasleentzat ere. “Dantzariak garenez, urrats ez urrats gabilta. 25 orduko mintegia antolatuko dugu, asteen behin, abendua bitartean. Ea zer ematen duen, jendeak ezagutu gaitzala” dio Bikandik.

Azken finean, mintegi honetan Aikok eta Dantzaldi Ibiltariak egindako apustua euskal dantzaren eta musikaren irakaskuntza normalizatzaren aldekoa da. “Euskararen nor-

malizazioa hurbiletik ezagutzen dut eta bada- kit dantzaren eremuan gauza asko ditugula egiteko. Euskal Herriko herri askotan erreza- goa da saltsa, merenge ala sabeleko dantza ikastea, euskal dantzak ikastea baino”, nabar- mendu du Bikandik. “Ez dugu eskolarik dan- tza maisuak trebatzeko. Orain arte, batzuen borondatezko lanari esker mantendu dira euskal dantzak eta musika. Eta eskerrak horri!. Baina egungo gizarteak beste gauza batzuk eskatzen ditu, dantza tradizionalaren transmisioa ezin da bolondresen esku utzi. Ikuspuntu nostalgiko eta erromantiko hori desagertzen ari da, bai hizkuntzaren transmi- sioan, baita dantzarenean ere. Gauza bat da dantzan jakitea eta beste bat dantza irakasten jakitea. Euskal dantza Eskolak behar beha- rrezkoak ditugu” aldarrikatu du sortzaileak.

Aikok irakasteko bere metodologia sortu du, eta euskal musika tradizionalako sortzaile diren heinean, euskal dantzarekiko zaletasuna landu dute. Betiere, asmo ludikoz. “Gure kul- turan dantzan egitea musikarekin bat egitea da. Ildo horretatik, gure ekarpentxoak egiten dugu- la iruditzen zait. Eta kalean, herrian, dantza zabaltzea, lotsa galtzea eta disfrutatzea da gure nahia. Egungo gizartean badirudi dantzari iza- teko profesionala izan beharra dagoela, espe- zialisten kontua dela ezinbestean. Dantza demokratizatu nahi dugu, eta horretarako dan- tzakera zaharrera jo dugu, dan- tzakera tradizionalera, ez akade- mikora. Ez zaharragoa delako, molde hori denontzat erraza delako baizik”. ■



Literatura

Inon ez, inoiz ez
Iban Zaldúa.

Elkar, 2014



Joseba deseraikiz

INON EZ, INOIZ EZ liburuarekin Zalduak hustu dela dio. Bertan idatzi baititu ordura arte idazteko zituen guztiak. Hala ere, aspaldi irakurtzen dugunok bada-kigu berehala sortuko zaizkiola ipuin gehiago betau-rrekoen beste aldean, belarri-zuloetan edo ezpain-zokoetan. Izan ere hala agintzen digu liburuaren amaierako “azken ohar gisa” atalean: ipuinak idaz-ten jarraituko duela diosku eta.

Inon ez, inoiz ez fikzioaren lekua eta denbora dira, bere hitzetan kontrazalean gogorazten digunez. Eta azalean dago txanponaren beste aldea, erreali-tatea, fikzioa idazteko behar den materiala eskain-tzen diona idazleari: “idazleak daukan material bakarra ezagutzen duena da (Truman Capote)”. Eguneroko agertoki edo pertsonaiak azalduko diz-kigu zenbait ipuinetan eta fantasia sartuko da zirri-kituren batetik kontatzen ari dena bestelako kolo-retan margotzeko. Zalduak ohi duen bezala. Eta fantasiarekin batera ironia; heriotza, harremanak, lana... zeharkako irribarrez eskainiko dizkiguna, bere pertsonaia baten esanetan: “ironia duk egun-go gizartearen zementua”.

Ironiaz ere jorratzen du “modako” gai bat. Orain arte esplizituki landu ez duen generoarena. Ipuin bateko elkarrietzeta batean hurrengo irakurri ahal diogu: “–Eta generoarena? Hi ez haiz emakumea! Hori interesgarriarena egiteko ipini dun! (...) –Ez al daude mota honetako kontuak puri-purian kritiko literarioen artean...?”. Baina kritiko literario honi, botatako eskularrua lurretik hartuz, gehiago intere-satu zaio beste ipuin batzuetan nola eraikitzen duen genero identitatea. Feminitatea hilekoarekin lotzen

baitu eta maskulinitatea bizarra egiteko aparrarekin. Horra generotik aztertzeke moduko bi datu.

Inon ez eta inoiz ez atalen artean, *Hemen, orain* atala dugu. Bertan Zalduak “la cosa” deitu izan duenari buruz hitz egiten du, “euskal gatazka” ere deitu izan denari buruz. Baina “las cosas” izan zitekeen, euskal gatazkarekin batera gerra zibila ere badelako atal honetan agertzen diren ipuinen gaia. Euskal Herri-ko historia hurbilari begirada botatzen dio liburu honen muinean, memoria ariketa eginez literatura-tik. “Euskal arimaren barrunbe hondogabeen natu-ra misterioitsua” ikuspegi esentzialista bazter utziz, baina gurean izan duen eraginari muzin egin gabe, eta “existitu ez den iragan mitiko bat eraikitzeke alferrikako ahaleginei” itzuri eginez “errelatoaren” bere bertsioa ematen du fikziotik bere alea jarritz.

Bere aurreko liburuko gai nagusia izan zen litera-tura eta idazlearen obsesioak ere agertuko zaizkigu han-hemenka. “Idazleak ingurukoengandik istorio-ak jasotzeko eta artearen aldarean ipintzeko eskubi-dea eta betebeharra du” irakurriko dugu. “Konta-tzeko modu baten bila aritu haiz. Hori dun idazle guztiek, putreen moduan, egiten duzuen” esango dio pertsonaia batek protagonistari ipuin batean. Eta horrek Woody Allenen *Deconstructing Harry* eka-rriko digu gogora. Eta idazleak fikzioa egiteko errealtateari zukua nola ateratzen dion pentsaraziko digu; polemika metalitera-rio horren metxa berriro piztuz eta kri-tikatxo honi izenburua emanez. ■



Amaia Alvarez Uria

1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren denboraldi berria

EUSKAL HERRIKO kultura musikala begi bistan dago, beste gauza askoren artean, kontuan hartzen badugu historia luzeko orkestra bat dugula, Bilbao Orkestra Sinfonikoa hain zuzen ere. 1922an eman zuen bere lehen kontzertua, Arriaga Antzokian, eta ordutik gaur arte munduan barrena aritu da, zuzendari ospetsuen batutapean eta punta-puntako bakarlariekin: Arthur Rubinstein piano jotzaile legendazkotik hasita, Mstislav Rostropovitz, Ivo Pogorelitz, Alfredo Kraus, Luciano Pavarotti... izar guztiak pasa dira BOSen iragazkitik. Urtez urte egitarau interesgarri eta ongi pentsatuak eskaintzen dizkigu, eta aurtengo ez da salbuespena izango: 17 proposamen aurkituko ditugu, batzuk estandarrik, beste batzuk ausartagoak, bai eskaintzen den programarengatik, bai aukeratutako bakarlariengatik ere.

Errepaso txiki bat emanez, pianozaleok gozatu egingo dugu piano eta orkestrarako hainbat obrarekin: Rachmaninov-en *Paganiniren gai baten gaineko Rapsodia*, hain erromantiko eta zinematografikoa; Ravelen *Sol maiorreko piano eta orkestrarako kontzertua*, elektrizatzailea; Beethovenen *3. Kontzertua*, Mozart ukitua duena, edo Liszten *1. Kontzertua*, sutua; denak ere, behin eta berriro entzuten diren obra horietakoak. Lan sinfoniko garrantzitsuak ere entzun ahal izango ditugu: lehenengo saioan Mahlerren *Titan* izeneko *1. Sinfonia* handia baldin badugu, hurrengo kontzertuetan, besteak beste, honakoak entzuteko aukera izango dugu: Brahmsen *1. Sinfonia*, do minorrekoa, op. 68, Txaikovskiren *Biolin eta orkestrarako kontzertua*, liluragarria, edo Schumannen *2. Sinfonia*, do maiorrekoa.



Baina BOSeK ahalegina egiten du hain “errazak” ez diren lanak eskaintzeko ere. Estreinaldiak izango ditugu, hala nola M.E. Luc-en *Hu*; baita azken belaunaldiko konpositoreen lanak ere; honen adibidea da Huang Ruo gazte txinatarraren *Announcement*; mundu klasikotik aterako gara jazz giroetan sartzeko *Jazz gana* izeneko saioan, Kurt Elling abeslariarekin, eta miniziklo tematiko batek, *Enigmak eta legendak* izenekoak, fantasiatzko mundura eramango gaitu, Guridi, Elgar, Grieg edo Richard Strauss-en partiturekin. Beraz, kalitatea eta imajinazioa publikoa erakartzeko. Ez dugu galduko. ■

Montserrat Auzmendi



www.bertsozale.eus/xilaba




Aiherra

Denen Etxea gelan
Urriaren 18an, 17:00etan




		
Eneritz Zabaleta	Odei Barroso	Ortzi Idoate
		
Ortzi Murua	Patxi Iriart	Ramuntxo Christy



Euskal Herria ezagutuz

ISPASTER (BIZKAIA)

Herri arkitekturaren lekuko

Lehen sektoreari lotutako jarduera ekonomikoa da nagusi Ispasterren. Herriko eraikinik nabarmenetako asko nekazaritza jarduerarako dira eginak, haien artean baserriak, jauntxoak, jauregiak eta haize-errota bat. Ezin dugu ahaztu, jakina, ondare erlijiosoa, San Migel elizak eta baselizak osatzen dutena. Herri arkitekturaren erakusleihoa dugu Ispaster.

Testua eta argazkiak:

| ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN |

ISPASTER UDALERRIA Bizkaiko ekialdeko kostaldean dago, Lea-Artibai eskualdean, Lekeitio, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Nabarniz, Ereño eta Ea mugakide dituela. Haren hamabi auzoek 22,62 kilometro koadroko azalera hartzen dute, eta 711 lagun bizi dira bertan 2012ko datuen arabera. Frankismoaren azken hamarkadetan biztanleria erdira murriztu zen arren, azken urteotan nabarmena izan da Ispasterren hazkundeak, batez ere erdigunea dugun Elexalde auzoan eraikitako etxeei esker.

Otoio (396 metro) eta Arterreta (251 metro) mendiek gordeta, erdigunea haran itxi bat da, oso ezaugarri geomorfologiko eta hidrologiko bereziak dituena: karezko multzoa da, erosioak kobazuloz eta leizez betetako sakonune karstiko bilakatu zuena; hondoa laua da eta gainazaleko urak bildu eta itsasorantz lurpean drainatzen dituen isurbide asko ditu. Labur-labur esanda, ibairik gabeko harana da Ispasterreko erdigunea. Horrexek azaltzen du zergatik dagoen haize-errota bat bertan.

Sakonunen horren hondokoak dira, beraz, lurrik aberatsenak, artoa, patata eta barazkiak landatzeko baliatuak direnak, nahiz eta azken urteotan soro eta beste zuhain-landaretarako erabilitakoek gero eta azalera gehiago hartu duten. Mendi-lepoetan, berriz, insignis pinuaren landaketak dira nagusi. Lehen sektoreak, oraindik ere, udalerriko ekonomiaren oinarria izaten jarraitzen du, biztanleria aktiboaren %40ri beharra ematen diola. Enbalatze zein altzari enpresak, aroztegiak eta turismoa ditugu gainontzeko jarduera ekonomikoak.

Ondare oparoa

Gernikatik Lekeitiora doan BI-2238 errepideari segituz heltzen da Barainka auzora. Han, Kristo aurreko 3.500 urtekotzat jo dituzten Kobeaga I eta II aztarnategiak daude, herriko garrantzitsuenak eta aurreneko biztanleen berri ematen dutenak. Aurkitutako piezek mesolitikoko azken garaietan arrantzale talde bat bizi izan zela esaten dute.

Behin gure aroan sartuta, urteak pasako ziren Ispaster agiritan ager-

tu arte: 1334an Gaztelako errege Alfonso XI.ak Amoroto, Gardata, Asumendi eta Ispasterreko hamarrenak Lekeitioko elizara itzultzeko agindu zuen. Maiz izan ziren Ispasterrek inguratzen duen Lekeitioekin tirabirak, elizate eta hiribilduen arteko gatazkan zein bando-gerren testuinguruan. Ispasterrek bat egin zuen Oinaz bandoarekin, eskualde hartan Zubietako jauntxoak –Adan de Yarza familia– buru zituena.

Ondareari dagokionez, XV. eta XVI. mendeetan eraiki ziren oraindik ere ikusgai dauden hainbat elementu, hala nola baserriak, baselizak eta herriko parrokia, San Migel eliza, herrian zehar edozein ibilbide hasteko abiapuntu aproposa.

Otoio mendiak behatua, Ea eta Lekeitio lotzen dituen errepidearen ondoan (BI-3238) dugu udalerriko hiriburua, Elexalde auzoa. Biztanle gehienak ez ezik, herriko eraikinik esanguratsuenetako batzuk ere bertan aurkituko ditugu, aipaturiko San Migel eliza errenazentista, besteak beste. 1519an, Lekeitioko Andra Mariren elizatik banandu zenean,

Ispasterreko parroikia, San Migel eliza, herrian zeharreko edozein ibilbide hasteko gune egokia.





San Martin (ezkerrean) eta Santiago baselizak ibilbidearen amaieran aurkituko ditugu.

parrokia moduan eratu bazen ere, lehenengo lanak –hegoaldeko ate semizirkularrerraino– 1540an hasi ziren. 1610ean ekin zioten berriro lanari, Juan Ortiz de Olaeta maisuaren gidaritzapean. Nabe bakarreko tenplu tinkoa da, barruko kontrahormen artean kapera altuak eta estilo gotikoko eta izar itxurako tertzeletoko gangak dituen.

1860ko urtarrilaren 25ean tximista batek aurrealdeko fatxada txikitu zuen, eta berreraikitzean estilo neoklasikoko kanpandorre luzea gehitu zuen Antonio de Goycochea arkitektoak. Barrualdean sei erretaula barroko daude, eta horietako batean, Joseph Egusquizak egindako eskultura, erliebe eta pinturak. Egurrezko eliza-atariak inguratzen du eraikin osoa.

Elizatik metro gutxira, probaleku zaharraren ondoan, udaletxea dago. Hiru solairuko eraikina da, aurrealde simetrikoa daukana, eta sarreran, baserrien estiloan, harrizko arku handi bat. Independentzia gerran boluntario ospitale modura erabili zuten. Tropa frantsesek su eman zioten eta 1817an berreraiki zuten.

Arana dorre-jaurregia

Earako bideari eutsiz, eskuinerantz joz, Larrinaga auzora helden da.

Han dago Arana dorre-jaurregia. Klasizismoko etxetzar honek hiru ataletan dauka banatuta harlanduzko etxaurrea: alboetakoak dorre prismatikoekin, eta erdiko arkupe-ramaten duen arku zabal batekin. Jauregiaren alderik ikusgarriena 1700 urtearen ingurukoa da, baina askoz ere basetxe zaharrago baten egitura ezkatatzen duen eranskin barrokoa baino ez da, hura XVI. mendearen hasierako atzealdeko ate gotiko bati esker ezaguna delarik.

1728an, lehorteak eragindako kalteak zirela-eta kezkatuta, hiru urte lehenago Artxandan eraikitako haize-errota bezalako bat egitea deliberatu zuten

Aurreko errepidetik Lekeitiorantz joanez, Kortazar auzora helden da. Bertan ikusiko dugu Kalzada baserria, bi fasetan eraikitakoa; aurrealde XVII. mendekoa du. Handik gertu, errepidea zeharkatuz, XVI. mendeko baserri multzo bat dugu; Axpe-Aurrekoa baserri gotikoa da zaharrena eta interesgarriena. Nabarmentze-

koak dira fatxadak dituen ogibaleihoa eta murre-arteke mehea. Handik, txintzarrezko bide batetik, Gernika-Lekeitio errepideko norabidea hartuta, eskualdean diren herri-etxe mota guztiak biltzen dituen Gallette auzora iristen da, baita 1729an eraikitako haize-errotara ere.

Aixeder errota

Errotak oso bizitza laburra izan zuen. Estutasun handiko garaietan eraiki zuten, 1723ko lehorteak eskualdeko ibai-errotak geldiarazi zituelako. 1745 baino lehenago, behin betiko utzi zioten erabiltzeari. 1728an, lehorteak eragindako kalteak zirela-eta kezkatuta, hiru urte lehenago Artxandan eraikitako haize-errota bezalako bat egitea deliberatu zuten, eta Jose de Guizaburuaga abokatuak hartu zuen hura eraikitzeke ardura.

Herritarrek, errota erabilera publikorako izango zelakoan, lursail egokiena opatu zioten, baita lanetarako ezinbestekoak ziren egurra eta harriak ere. Guizaburuagak beharginak kontratatu, lana egin eta, monopolio baldintza hobezinak ziurtatuta, hura ustiatzeari ekin zion. Errotarekin batera errotariarentzako etxea ere eraiki zuten. Negozioak, baina, ez zuen abokatuak nahi zuen beste



Goian, Ogella hondartza, ibilbide honetatik kanpo utzi dugun arren Ispasterren ikustea merezi duen lekuetako bat. Eskumako argazkian, Aixeder errota.



etekin eman. Galerak ikusita, errota aurrera eroaten saiatu zen, nahiz eta gehienetan oso ortodoxoak ez ziren bitartekoak erabili. 1731n, esaterako, udalak salatu zuen errotariaren etxean isilpeko txakolindegi bat zabaldu zuelako. Taberna hartan, Ispasterrek zeukan bakarrean, eten-gabekoak ei ziren iskanbilak.

Aixeder errotan kontserbatu den bakarra tresneria gordetzen zuen harrizko dorrea da. 1990ean Bizkaiko Aldundiak zaharberritu zuen: hamar metroko altuera, oinarrian hamar metroko diametroa eta gailurrean zortzi metro dituen konoa. Eta Aixederren barrualdea berregokitu zen, etxebizitza bihurtzeko.

Azken txanpan, San Martin eta Santiago

Bidaariak errotan bertan hasiko du herrirako jaitsiera. Bidean, nahiko gertu, San Martin basiliza aurkituko du, XV. mendearen bukaeran estilo gotikoan eraikitako kapera errektangeluar eta luzea. Handik Santiago basilizarako bideari ekingo dio; horma gotiko sendoak dira Elexalde auzoko eraikin erlijioso horren ezaugarriak behinena. XVI. mendearen erdialdean eraldaketa batzuk egin zitzaizkion: leiho berriak zabaldu ziren eta, besteak beste, korua eraiki zen.

Horrela emango genioke amaiera proposatutako ibilbide borobilari.

Kontuan izan beharko dugu, baina, honetatik kanpo geratzen direla Mendazona auzoko basiliza, Otoio mendia, Ogella hondartza eta Zubietako jauregia. 1720ko eraikin barroko hori, Bizkaiko ederrenetako bat, Lea ibaiaren ondoran dago, Arropain auzoan, Lekeitioko hirigunearen ondoan. Merezi du bisitatzea. ■





Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune partehartzailea.



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Karlos Cid Abasolo hizkuntzalariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	5							3
1	7	2			3	9	8	5
	8		1	5	7			
3		5		8			9	1
	9	8				4	5	
6	1			4		8		2
			8	3	1		6	
8	6	1	5			3	2	9
5							1	

Zaila

7	1							
				4	8			5
5							7	6
	3	5		1			2	
1	4			2			8	7
	2			5		3	6	
3	9							2
4			9	6				
							5	9

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Ergela. 2.-Edateko. 3.-Motz.
- 4.-Etxeak eraikitzeke eremu.
- 5.-Itxura, antza.

Kike Amonarrizen umorea

Kopiatzen

Irakasleak Amaiari:

– Amaia! Aurreko bi azterketetan txuletekin kopiatzen harrapatu zaitut eta espero dut gaur ez berriro harrapatzea!

– Nik ere gauza bera espero dut, Lorea!



Soluzioak

Erraza

1	7	2	9	8	5
9	8	3	1	5	7
2	9	8	3	1	5
3	4	5	6	7	8
4	5	6	7	8	9

Zaila

7	1	4	5	3	6
9	6	2	7	4	8
5	8	3	2	9	1
1	4	9	6	2	3
8	2	7	4	5	9
3	9	6	1	7	5
4	5	8	9	6	2
2	7	1	3	8	4

Puzzlea:

“Egin behar ez dena da euskarari buruzko iritzi okerrak sustatzea. Adibidez euskara oso zaila dda edo euskal aditza oso kontu berezia dela.”

5x5:

1. Leloa. 2. Edari. 3. Labur. 4. Orube. 5. Aire.

Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak

Noiz: irailaren 23tik urtarrilaren 25era (astelehenetan itxita).

Non: Guggenheim museoa, Bilbo.

Sarrera: helduek 10 euro, 12 urtetik beherakoek doan.

Guggenheim bete maisulan

SOLOMON GUGGENHEIM Fundazioaren Bildumetako harribitxiak osatzen dute urtarrilaren 25era arte ikusgai egongo den *Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak* erakusketa, XX. mendeko artearen gaineko ikuspegi zabala eskaintzen duena. Fundazioaren eta Bilboko museoaren arteko hitzarmenaren 20. urteurrena ospatzeko jaioa, toki berezia eskaintzen die Oteizari eta Chillidari.

Erakusketaren lehen atalak 65 obra dakartza, eta Bilboko museoko hirugarren solairuan daude paratuta. Bigarren atala urriaren 23an inauguratuko da, eta gainontzeko bi solairuak beteko ditu.

AEBetako Fundazioaren eta Guggenheim-Bilbao museoaren arteko lankidetzak nabarmentzeko asmoz, 1997an museoaren irekierako erakustaldia ekarri nahi du gogora egungoak, eta erakustaldi hartan jarritako margo ezagunak berriro ikusteko aukera zabalduko digu. Hala ere, bildumetako lan klasikoak ez ezik, azken hogeitazetaren funtsak sendotu eta aberastu dituzten artelan berriak ere izango dira ikusgai, Richard Long artista ingelesak arbelaz eginiko *Bilboko zirkulua* (2000) kasu.

Orden kronologikoari segituz, XX. mendearen hasierako abangoardia historikoak (kubismoa, surrealismoa, fauvismoa, Alemaniako eta Austriako espresionismoa, besteak beste) ditu abiapuntu erakustaldiak. Bertan, egun klasiko diren hainbat margolan ikusiko ditugu 305 eta 306 aretoetan. Erakusketaren komi-



Paris leihotik, Marc Chagall.

sario Lucia Agirrek hedabideen aurrean esan zuenez, “behin *etorkizuneko artea* izan zena, 1929an Solomon Guggenheimek Vasili Kandinskiren *8 konposaketa* –Bilbon ikusgai– erosita biltzen hasi zena, gure garaiko artea bilakatu da”. Amedeo Modiglianiren *Biluzia* (1917), Marc Chagallaren *Paris leihotik* (1913), Franz Marcen *Zezen zuria* (1911) edota Pablo Picassoren *Pitxarra eta fruta-ontzia* (1911) dira, esaterako, horietako batzuk. Joan den mendeko artearen garapena ulertzeko ezinbestekoak diren beste izen batzuk ere aurkituko ditugu, hala nola, Piet Mondrian, Paul Klee, Georges Braque, Juan Gris, Joan Miró, Paul Delaunay... Paris modernitatearen ikurra bihurtu zuten horiek guztiak.

Jarraian, II. Mundu Gerraren osteko arte joera berriei esker, New Yorkeraino egingo dugu jauzi eta Jackson Pollock eta Max Rothko

aitzindari dituen Espresionismo abstraktuarekin egingo dugu topo. Aurrekoek, Europan, errealtatea irudikatzeko modu berriak jorratu zituzten. Gerraosteko margolariek, berriz, teknikari eta koloreen erabilpenari eman zioten garrantzia. Emozioa eta egoera espirituaalak sorkuntzan agertzeko, pintura aplikatzeko prozedura berriak erabili zituzten (Pollockek, adibidez, lurrean ipini ohi zituen mihiseak pintura bertan jaurtitzeko, pintzela erabili gabe), baita kolore-plano zabalak ere (azken hau dugu Rothkok aukeratutako bidea).

304 eta 301 dira, hurrenez hurren, Chillida eta Oteizari eskainitako aretoak, bakoitzak bosna eskultura hartzen dituela: Oriotarren kutxa metafisikoak eta esferaren inguruko saiakerak (guztiak 1957-58koak, Sao Pauloko Bienalekoak) zein donostiarraren neurri handiko lanak.

Azken bi aretoetan (302, 303) abangoardia berrienetako batzuk –informalismoa, minimalismoa, kontzeptualismoa– dira nagusi. Bertan, Bilbon dagoeneko ikusiak diren Longen *Bilboko zirkulua* edota Jannis Kounellisek ikatz zorroekin egindako instalazioa daude, esaterako, baina bestela kokatuta daude, komisarioaren esanetan, ikusleek lan horiek berraurkitzeko parada izan dezaten. ■

**Alvaro Hilario
Pérez
de San Román**



.eus luzapena aukeratzearen ondorioak

ZERGATIK eskuratu behar dut .eus luzapena duen domeinua? Luzapen berrira aldatzeak zertan eragiten du indarrean ditudan webgunean, posta elektronikoetan eta abarretan?

Mende hasieran galdera ohikoenak .com, .net, .edu edo .org luzapena zuten domeinuen komenigarritasunari buruzkoak izaten ziren. Hego Euskal Herrian, nire inguruan behinik behin, oso gutxi galdetu zuten .es luzapenaz; bestek beste, euskaldun izatearen eta .es luzapena erabiltzearen arteko kontraesanean, agerian geratzen baitzen gatazka historikoa. Hala ere, Hego Euskal Herriko administra-

zio askok .es luzapena aukeratu zuten euren domeinu-izenari eransteko. Ipar Euskal Herrian antzeko prozesua gertatu zen .fr luzapenarekin.

Internet gizarteratu denetik hogeitaz eskas igaro dira, eta une honetan ehunka luzapen erabil daiteke. Administrazioek euren herrialdeetako luzapenak erabiltzen dituzte, eta mundu osoan enpresek .com, .net eta tankera horretako luzapen klasiko-

.eus domeinuaren aurkezpen ekitaldia.

ak nahiago badituzte ere, gero eta gehiagok aukeratzen dute herrialde batekoa, batez ere euren produktuak herrialde horretako hizkuntzan saldu nahi dutenean.

Euskal Herrian .eus luzapena eskuratzen ari diren askok eta askok nor-tasunarekikoa dute .eus-era jauzia egiteko arrazoi nagusia; baina erabakiaren ondorioak webgunea domeinuz aldatzetik harago doaz: erakundearen aurkezpen txartelak, posta elektronikoa, marka erregistratuak, merkatuko produktuen fitxa teknikoak kokapena eta beste hainbeste ezaugarri aldatu behar dira. Eta horrek kostua du.

Beraz, .eus harrotasunez eskuratzen badugu lehen unean, berehala pentsatu behar dugu gure erakundearen jarduerari marka hori komeni zaion ala ez. Gure salmenta-bide nagusiak atzerrian baldin baditugu, "Basque country" markak izan dezakeen indarraren arabera izango da gure interesa; baina gure jardura batez ere Euskal Herrian kokatzen bada, .eus luzapenak psikologikoki lagundu gaitzake bezeroak gutaz duen pertzepzioa positiboago bihurtzen. ■



Eguzkia baino zaharragoa den ura dago Lurrean

Michiganeko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera, Lurreko ozeanoetan dagoen uraren %30 eta %50 bitartean eguzkia baino zaharragoa da. Diotenez, ozeanoetako uretan dagoen deuterio proportzio handiak erakusten du ur horren kopuru esanguratsu bat, jatorrian, eguzkia sortu baino lehenagoko izotza izan dela. Deuterioa hidrogenoaren isotopo bat da; harekin osatutako urari ur astun esaten zaio.

ttiki.com/84040
(Euskaraz)

Liztor asiarraren aurkako borrokan arma berri bat

Europa osoa dago liztor asiarrarekin kezkatuta. Berriki, ikerlari frantziar batzuek eragingkorra izan daitekeen bide bat zabaldu dute haren aurkako borrokan: liztorraren erregina hiltzeko gai den parasito bat atzeman dute.

ttiki.com/84041
(Frantsesez)

40 urtean erdira jaitsi da hainbat animalien populazioa

WWF naturaren aldeko nazioarteko elkartearen arabera, 40 urtean animalia lehortearen %39 desagertu da, eta beste hainbeste itsasoko animaliei dagokienez. Ur gezako animalien %76 ere galdu da. Guztira, ornodunen %52 desagertu da 1970 eta 2010 bitartean.

ttiki.com/84042
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Shikimikoa

LIKIDANBARRAK (*Liquidambar styraciflua*) anbar likidua ematen duen bezala, beste gai askoren iturri ere bada. Tartean, bere hazietatik sortzen den azido shikimikoarena. Izen xeble hori japonieratik dator, *shikimi* deitzen dioten izar itxurako anis landare japoniarretik (*Illicium anisatum*); landare horretan aurkitu eta bakartu zuten, lehenengoz, azido hori.

Azido shikimikoa landareen osagai biokimiko garrantzitsua da. Landareen bizitzan beharrezkoa

da, eta aspaldi honetan baita geurean ere. Botika eta gai kimiko askoren aitzindaria da: Tamiflu antibirusa, azido salizilikoa, resberatrola... Adibidez, antibirus horren hamalau pilula kaxa egiteko lau kilo inguru likidanbar hazi behar da. Eskea etengabe hazten ari da eta gero eta landare gehiagotatik sortzen da azidoa: pinuak (*Pinus* sp.), izar itxurako japoniarra ez beste anixak (*Illicium* sp.)...

Landareen barruan azido shikimikoa sortzeko bidea oztopatuz

lan egiten du glifosato belar-hiltzaile ezagunak. Azido gabe landarea hil egingo da. Monsanto etxe beldurgarriak sortu zuen. Ukitzen duen guztia hiltzen du belar-hiltzaileak, baita soroan egin nahi dugun landarea ere. Uztari kalterik egin gabe, glifosatoa lasai erabiltzeko, transgenikoak sortu zituen Monsanto berak. Horrela landarea, soja, artoa edo dena delakoa bertan izanagatik lasai erabil daiteke herbizida, baita dosi aberatsagoan ere. Transgenikoa horretarako prestatua dago, glifosatoz bustiagatik, azido shikimikoa egiten jarraitzeko gai da. Orain negozioa bikoitza da: belar-hiltzailea eta hazi transgenikoa etxe berari erosi behar... Amerikako Estatu Batuetan soilik 2007. urtean, hor nonbait 95.000 tona herbizida saldu zuen.

Roundup izena du glifosatoa duen herbizidak, eta hondatzen ez dituen transgenikoei *Roundup Ready* (RR) izena jarri diete (soja, artoa, kotoia, garia, basartoa, alpapa...). Bertsolariren bat izango duten izen-asmatzaile, "Rounduperako prest" esan nahi du... Dakigunez, azeri-buztana (*Equisetum* sp.) da glifosatoak izorratzen ez duen landare bakanetakoa. Azeri-buztana, japonieraz *tsukushi*. ■



KENPEI-CC BY SA



Illicium anisatum. Azido shikimikoa landare honetan bakartu zen lehen aldiz.

%28 ortorexiadun

Makurkeriaren aroa bizi dugu. Txarra dena ontzat eta ona txartzat dugu. Ederra itsusi eta itsusia ederra. Osasungarria osasungaitza eta gaitza osasungarri. Balioak makurki irauli eta buruz behera, hankaz gora azaltzen zaizkigu...

Ortorexia ezagutzen al duzu? Zuzena edo egokia dena adierazten duen *orto* grekotik dator. Bada, ortorexia patologiatzat deskribatu zuen 1996an Bratman doktoreak: elikadura osasuntsua izateko joera zorrotza. Munduko Osasun Erakundeak dio: herrialde

aurreratuetan, %28 patologia horrek jota bizi omen gara. Ni ere hor sartzen naiz, eta nire ortorexia ortutik abiatzen da.

Gaitza ez da nekazaritza industrialak ekoiztutako mozkin pozoitsu hiltzaileak jatea. Osasuntsu jatea da arazo. Multinazionalen etorkizuneko negozio oparoen hankaz gora jartzen baitugu. Laster ortorexiako artatzeko psikiatria masterrak, tratamendu eroak, botika garestienak eta poliziarentzako protokoloak aterako dituzte. Denborak esango du. ■

Atlantropa: Afrika eta Europa josita

ALEMANIA, 1920KO HAMARKADAREN AMAIERA. Herman Sörgel (1885-1952) arkitekto alemaniarak Europa eta Afrika fisikoki batzeko proiektu handizalea presatu zuen, Gerra Handiaren ondorengo krisi orokorrari aurre egitea xede. Sörgelek uste zuen Afrikari ez zitzaiola inolaz ere behar bezalako etekinik ateratzen, eta Mediterraneo itsasoak hiri eta estatu berriak sortzeko erabil zitekeen lur-eremu aproposa betetzen zuela.

Proiektutzarrari Atlantropa esan zion eta, besteak beste, Gibraltar itsasartean presa bat aurreikusi zuen, ozeano Atlantikoari bidea itxiko ziona eta energia elektrikoa sortzeko erabiliko zena. Dardanelos itsasartean beste presa bat eraikiko zuten. Bi ertz horiek itxita itsasoko ura pixkanaka lurrunduko zen eta, hala, urpeko eremu asko berreskuratuko ziren. Ondoren, baliabideak eskuratzeko aukera egongo zen lur eremu lortu berrietan. Sörgelen kalkuluen arabera, mende erdi pasatxoan 600.000 kilometro koadro inguru berreskuratuko ziren.


Baina ur hura guztia ez zen lurrunketa mantsoaren menpe egongo; lehentasunezko helburuetako bat Mediterraneo itsasoaren zati bat Afrika erdialderaino kanalizatzea eta han itsaso artifizial bat sortzea zen; Saharako basamortua ureztatu eta laborantzian ustiatzeko lurak lortuko omen ziren Mediterraneoko lur afrikaratuari esker.

Zentzurik eta etorkizunik gabeko proiektua badirudi ere, arkitekto eta ingeniari ezagunen babesak lortu zuen Sörgelek; Peter Behrensena, esaterako. Baina proiektua gauzatu zezaketenez, agintari politikoek, ez zioten jaramonik egin. Adolf Hitlerren igoera gogo onez eta itxaropentsu hartu zuen Atlantroparen aitak. Kontinente berri bat sortzeko ideia buruzagi naziaren megaloma-



LITIZ-CC BY

Goian, Atlantroparen irudikatze artistikoa. Azpian, Gibraltarren eraiki beharreko presaren planoak, herman Sörgelek berak diseinatuak.



niarekin bat etor zitekeela pentsatu zuen, baina Hitlerrek hasieratik baztertu zuen.

Alemaniar nazien babesik gabe, Sörgel antipodetara joan zen laguntza bila: juduengana. Erich Mendelsohn arkitektoarekin batera, Sörgelek uste zuen Atlantropen kolono juduentzat nahikoa toki egongo zela eta, hala, juduek ez zutelako palestinarrei lurak kentzeko beharrik izango. Baina Bigarren Mundu Gerrak Sörgelen itxaropen urriak uxatu zituen; gobernuak ardura-tuago zeuden suntsitzeaz eraikitzeaz baino.

1952an, Municheko Unibertsitatean hitzaldi bat ematera bizikletan zihola, auto batek jota hil zen arkitekto ameslaria. ■



Arrastoak

Nondik dator Bloody Mary koktelaren izena?

PARADE MAGAZINE



MARIA I. INGALATERRAKOARI (1516-1558) Bloody Mary (Maria odoltsua) ezizena ipini zioten protestanteen aurkako jazarpen gogorragatik. Baina tomate zukuz eta vodkaz osatutako koktel ezaguna ez omen zuten erreginaren omenez bataiatu. Batzuek uste dute Mary Pickford aktorea dagoela izenaren jatorrian, edo Chicagoko Bucket of

Blood tabernako Mary izeneko zerbitzaria. Hipotesi zabalduenaren arabera, 1920an Fernand Petiot asmatzaileak koktela Vladimir Smirnoventzat (Smirnoff vodka-gile sendikoa) prestatu zuen eta edabeari Vladimir izena jarri zion. Ingeles hiztunak "Vladimir" oker ahoskatzen hasi ziren eta, azkenean, emaitza Bloody Mary izan zen. ■

Alderdiek dute orain hitza EAEn

EAEn haustura hidraulikoa galaraztearen alde aurkeztutako 100.000 inguru sinadurek berriro ipini dute teknika horri buruzko eztabaida gaurkotasunaren erdigunean. Aurrekariak erakusten dute lege debekatzailerik batek, onartzekotan ere, ibilbide laburra edukiko lukeela.

Hor dugu Nafarroako adibidea: frackinga debekatzeko duen bertako legea geldiarazi du Espainiako Konstituzio Auzitegiak, Madrilgo Gobernuaren helegitearen ondorioz. Dena den, ez dirudi Gasteizko Legebiltzarretik Iruñekotik bezain arau murriztailea aterako denik.

| UNAI BREA |

ASKI ZUTEN 30.000 lortzea, baina azkenik 103.589 hiritarren sinadurak eraman zituzten Eusko Legebiltzarrera, haustura hidraulikoa debekatzeko xede duen herri ekimen legegilearen (HEL) sustatzaileek. Fracking Ez plataformak, alegia. Proposatzen duten legearen testua oso laburra da, erraz azaltzeko modukoa: debekatu egiten da hidrokarbu ez-konbentzionalak bilatzea, ikertzea eta ustiatzea, eta debekatu egiten da edozein helburekin fracking izeneko teknika erabiltzea EAEko lurralde osoan.

Eusko Legebiltzarrak bere horretan onartuko balu legearen testua, haren patua zein izango litzatekeen igartzea ez da batere zaila: Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztuko luke Konstituzio Auzitegian, eta epaileek legea balio gabetuko lukete behin betiko ebazpena eman arte. Halaxe gertatu zaie oraingoz Espainiako Estatuan frackinga debekatzeko promulgatu diren autonomia erkidegoetako lau legee: Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Kataluniakoa.

Horra iristeko, baina, Eusko Legebiltzarrak bere horretan onartu behar luke Fracking Ez plataformaren lege proposamena, eta nekez jazoko da halakorik. Ziur esan daiteke, hori bai, Gasteizko parlamentuak ez dizkiola atak itxiko HELari, gutxienez hiru alderdik (EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk) tramitaztearen alde bozkatuko dutela baieztatu dute eta. Ezin da egin ez

ikusiarrena 100.000 izenperen aurrean, are gutxiago zerumugan udal hauteskundeak dituen ikasturte politiko batean.

EH Bildu, eztabaidaren azken emaitzaz mesfidati

Hain zuzen, udal hauteskundeak hurbil izateak eztabaidaren erritmoari eragingo diola uste du Dani Maeztu EH Bilduko legebiltzarkideak. EH Bildu da Fracking Ez-en testua ezer ere ukitu gabe onartzeko prest dagoen talde bakarra, eta Maeztu beldur da gainerako alderdiek, HELari atak zabaldu arren, haren bertsio urardotu bat onar-

tzea dutela gogoan, zerbait onartzekotan.

“Otsail edo martxo aldean eduki genezake legearen behin betiko testua —dio abokatu durangarrak—, baina data horiek arriskutsuak dira talde batzuentzat; eztabaidaren parte gogorrena, behintzat, udal hauteskundeak igaro arte atzeratzen saiatuko direlakoan nago. Eta seguru nago legea desitxuratuko dutela, Arabako Batzar Nagusiek egindako lege proposamena desitxuratu zuten bezala”. Gogora dezagun natur parkeetan haustura hidraulikoa lege debekatzeko proposatu zutela Arabako Batzar Nagusiek,



FRACKING EZ PLATAFORMA

Irailaren 13an eraman zituzten 103.000 sinadurak Eusko Legebiltzarrera.


Hidrokarburoen ikerketarako baimenak Euskal Herrian

Ikerketa eremuak autonomia erkidego bat baino gehiagoko lurrak edota itsasoa hartzen baditu, Espainiako Industria Ministerioari dagokio baimena ematea. Beste kasuetan, erkidegoko administrazioari.

1	Enara	75.852 ha.
2	Usoa	72.691 ha.
3	Usapal	74.934 ha.
4	Mirua	75.240 ha.
5	Saia	49.752 ha.
6	Lurra	12.438 ha.
7	Lore	37.314 ha.
8	Sustraia	55.971 ha.
9	Landarre	37.314 ha.
10	Libra	37.893 ha.
11	Geminis	47.940 ha.
12	Pegaso	102.884 ha.
13	Quimera	101.032 ha.
14	Aquiles	96.961 ha.
15	Ebro-E	101 136 ha.

Enara, Usoa, Usapal eta Mirua, Enara Handia izeneko eremuan batuta daude 2008az geroztik.

Iturria: Espainiako Industria, Energia eta Turismoa ministerioa.



- Eusko Jaurlaritzak dagoeneko emandako baimenak
- Eusko Jaurlaritzari eskatutako baimenak, oraindik ebazteke
- Espainiako Gobernuak dagoeneko emandako baimenak
- Espainiako Gobernuari eskatutako baimenak, oraindik ebazteke

BAIMENAK ESKATU DITUZTEN ENPRESAK

Enara Handia: SHESA / Petrichor (Heyco) / Cambria.

Saia: SHESA.

Lurra, Lore, Sustraia eta Landarre: SHESA / Petrichor (Heyco).

Geminis, Pegaso, Quimera, Libra eta Aquiles: Frontera Energy.

Ebro-E: Oil and Gas Skills / SHESA / Unión Fenosa.

2013ko otsailean; Eusko Legebiltzarrak azkenik onartutako testuan, berriaz, debeku esplizitua desagertuta zegoen.

EAEko PPK gaiaz duen iritzia zeharo argia da –Gasteizko Udalarren salbuespenarekin–, eta bat egiten du Madrilgo nagusiek jotzen duten doinuarekin: batetik, haustura hidraulikoa sustatu egin behar da; bestetik, autonomia erkidegoek ez dute eskumenik hidrokarburoen esplorazioa edota ustiapena debekatzeko. Ustekaberik ez da espero joko zelaiaren baxter horretan. Aldiz, konplexuagoa dxa EAJren eta PSE-EEren jarrera.

EAJ: “Zenbat energia daukagun jakin behar dugu”

Luis Javier Telleria mintzatu zaigu jeltzaleen izenean. Telleria bere alderdiaren bozeramailea da Legebiltzarreko Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Batzordean. “100.000 hiritar azaldu badira HELaren alde, argi dago onartu

Frackingaren aurkariak gogorarazten dutenez, SHESA sozietate publikoak bere egitasmo guztiak mantentzen ditu, baita atzerriko enpresekiko loturak ere

behar dela”, adierazi digu; “hortik aurrera gure posizioa zehaztuko dugu; inor ez da harrituko esaten badut gure taldea, Jaurlaritzarekin batera, ez dagoela hidrokarburoak aztertzearen aurka. Beharrezkotzat dugu zenbat energia dugun jakitea, beti ere ingurumenari kalte egin gabe, energia funtsezko aldagaita baita herri baten ekonomian”.

Zuzen dabil Telleria: inor ez da harrituko. Lehenik eta behin, gogoan izan behar da EAEen hidrokarburoak aztertze eskatu diren ia baimen guztiak (ikus aurreko orrialdeko mapa) Jaurlaritzaren men-

peko SHESA sozietate publikoak eskatu dituela. Haustura hidraulikoaren aurkariak gogorarazten dutenez, SHESAk bere egitasmo guztiak mantentzen ditu, baita atzerriko enpresekin dituen loturak ere. Egitasmo horien barruan, esplorazioa ez ezik, gasaren ustiapena dagoela agerian uzten dute SHESAk Heyco konpainia estatubatuarrekin egindako lehen bileren aktek (ikus ARGIA 2.333). Zertarako esploratu, gero ustiatzeko asmorik ez baduzu?, galdetzen dute frackingaren kontra antolatu diren taldeek, eta gaineratzen dute esploraziorako teknikak ere arriskua dakartela.

Jaurlaritza, ateak zabaltzen

Gasaren garrantzi estrategikoa ukatu gabe, frackingaren ondorioez askoz jarrera kritikoagoa agertu zuen EAJk Eusko Legebiltzarrean oposizio izatea egokitu zitzaionean. Berbarako, haustura hidraulikoan erabiltzen diren konposatu kimikoen izaeraz oso galdera zehatzak egin zizkieten orduko Jaurlaritzari. Ordainean, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua oso modu orokorrean aipatzen zituzten erantzun lausoak eman zizkieten, EAJ Lakuara itzultzeaz geroztik Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak eman dituenaren antzekoak. Frackingaren inpaktuak eta arriskuak ondo dokumentatuta daude, eta oraindik inork ez du argi azaldu gurean nola saihestuko lirakeen zehazki inpaktu eta arrisku horiek.

Hitzek baino aztarna hobeak ematen dituzte ekintzek, agian. Azken hilabeteotan esanguratsuenak, Gasteizko Mendiak parke natural izendatzeko prozedura gelditze-ko Jaurlaritzak hartutako erabakia izan da. Itxura guztien arabera, hor irekiko dituzte Euskal Herriko lehen bi putzuak, Enara-1 eta Enara-2. Berria jakin zenean, joan den ekainean, haustura hidraulikoaren gorabeherak gertutik jarraitzen dituen Iker Armentia kazetari arabarrak esan zuen: Jaurlaritzaren mezua da ez dela komeni Gasteizko Mendiei babes handia ematea, etekin polita eman dezakeen ingurua baita.



SHESAren enkarguz TESLA enpresak egindako proba sismikoen kontrako protesta, Audio inguruan.

Gasteizko Udala, ezusteko aurkaria

Bitxiena da udala dela Gasteizko Mendien auzian Jaurlaritzaren aurkari handienetakoa, izan ere parke naturalaren sustatzaile nagusia baita. Garoñarekiko nola, PPren mutur berdeenean kokatu du bere

Oraindik inork ez du argi azaldu gurean nola saihestuko diren zehazki frackingak dituen inpaktu eta arriskuak

burua Javier Marotoko alkateak fracking kontuetan. HELaren aldeko sinadura ere eman du, publikoki gainera. Bestalde, Gasteizko Udaleko Ingurumen saileko iturriek adierazi digute badutela frackingarekin zerikusia duen beste fronte bat zabalik: Enara-5 izeneko putzua Salburuan irekitzea aurreikusita dago, baina bertan dagoen hezegunea RAMSAR hitzarmenaren zerrendan dago. Udala kexu da Jaurlaritzak aspaldi ezarria behar zuela babes perimetro bat bertan, baina atzerapen handiz dabilela. Badirudi azkenean perimetroa egin egingo dela, nolahi.

PSE-EE, norabidea aldatzera behartua

PSE-EE halabeharrez igaro da EAEn frackingaren defendatzaile sutsuena izatetik diskurtso lauso bat erabiltzera. Iritzi publikoaren aurrean garaipen bat aurkeztu beharrek bultzatu zuen Patxi Lopez lehendakaria Arabako gasaren “miraria” lau haizetara zabaltzera. Era horretan, Ibarretxeren garaitik SHESAk isilpean egindako lana azaleratu zuen Portugaletekoak, eta bide batez hain indartsu bihurtu den erresistentzia mugimendua abiarazi zuen, nahi gabe noski. Horrek sozialisten diskurtsoa baldintzatu zuen Ajuria Enean iraun zuten bitartean. Baina gauzak aldatu egin dira. SHESAren ardura beste batzuek dute orain, eta Espainian frackingaren

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Haustura hidraulikoaren kaltegabetasuna defendatzea gero eta zailagoa da

FRACKINGA Euskal Herriko hedabideen ohiko hizpide bilakatu zenetik etengabe plazaratu dira haren kalteei buruzko albisteak. Zenbat eta gehiago ikertu, orduan eta frackin-gari lotutako arrisku gehiago aurkitzen ditu zientziak. Horietako zenbaitzuei buruz hitz egin genizuen ARGIAren 2.303 zenbakian, *Energia-
ren azken pagotxa* izenburuko erreportajea: inguruko ura kutsatzeko arriskua, lurrikarak, aireko kutsadura... Ia hiru urte igaro dira, eta ikerlariak orduan esandakoak baieztatzen jarraitu dute; era berean, frackingaren inpaktu gehiago atzeman dituzte. Hona adibide batzuk:



Colorado ibaiak gas ez-konbentzional putzu asko dagoen inguru bat zeharkatzen du. Bertan hartutako laginetan ohi baino etengailu endokrino gehiago atzeman zituzten Missouriiko Unibertsitateko ikerlariak.

- AEBetako Yale Unibertsitateak gidatutako ikerketa baten arabera, gas putzuetatik hurbil bizi diren pertsonen arrisku handiagoa dute **azaleko eta arnasbideetako gaitzak** izateko.

- Missouriiko Unibertsitateak haustura hidraulikoa egiteko erabiltzen diren ehunka **konposatu kimikoetako batzuk** aztertu eta horietako asko **etengailu endokrinoak** direla adierazi zuen. Alegia, ugalketa funtzioan irregularitasunak eragin ditzakete, hala nola diabetesa eta minbizia, besteak beste.

- Gas naturala, batez ere, metanoa da. Erretzean, ikatzak eta petrolioak baino CO₂ gutxiago askatzen du atmosferara; horregatik, gasa ustiatzearen aldeko argudio erabilienetako bat da tresna egokia dela energi ereduaren trantsizioa egiteko, berriztagarriak garatu bitartean. Alabaina, erre gabeko **metanoak CO₂-ak baino askoz berotegi efektu handiagoa du**. Hainbat urtez pentsatu da metanoaren berotegi efektua gutxi gorabehera 25 aldiz indartsuagoa dela karbono dioxidoarena baino. Baina klima aldaketaz arduratzen den IPCCk duela urtebete adierazi zuenez kalkulu baikorra zen hori; azken ikerketei jaramon egitera, proportzioa 34koa da. Cornell Unibertsitatearen azterketa baten arabera, **metanoaren %3,6 eta %7,9 bitarteko portzentaje batek airera ihes egiten du** gas ez-konbentzional putzuetan. Frackinga ikatza erretzea baino okerragoa izan daiteke.

aurkako diskurtsoa darabil PSOEk, dela konbentzimenduz dela oposizioa egin beharrez.

Gauzak horrela, gaur-gaurkoz PSE-EEK duen posizioaz galdetu diogu Natalia Rojo Gasteizko legebiltzarkideari. Hauxe erantzun digu, parlamentuan HELA eztabaidatzearen alde bozkatuko dutela berretsi ostean: “Gure jarreraren ardatza ingurumenaren babes zorrotza da.

Hortaz, arriskurik izatekotan gasa eraztearen kontra azalduko gara. Edonola ere, Legebiltzarrak erabakitzen duena erabakitzen duela, energi ereduari buruzko eztabaida ahalik eta zehatzena egin behar dugu. Euskadik %95eko menpekotasun energetikoa du, eta horri aurre egin behar dio. Argi dago frackinga ez dela konponbidea, baina eztabaidatu dezagun”.

Bitartean, enpresak lanean

Hego Euskal Herriko zati handi batean daude hidrokarburoak bilatzeko baimenak eskatuta. Bizkaian, eta are gehiago Araban, lurraldearen portzentaje oso handian. Baimen guztiak ez daude emanda, baina emanda daudenetan lanak aurrera doaz.

Mugimendu gehien, orain, Bizkaian dago. Fracking Ez Bizkaia taldeko Aitor Urrestik azaldu digunez, oso litekeena da Getxotik Urdaibaira bitarteko Geminis eremuan proba sismikoak hastea datorren udaberrian. Iaz Saia eremuan egin zituzten mota horretako probak, Bizkaiko hegoaldean eta Arabako Aiaraldea eskualdean. Probek ez diote ingurumenari kalterik egiten, baina hidrokarburoen esplorazioa egiteko ezinbesteko lehen urratsa dira. Horregatik, frackingaren aurkako taldeek mobilizazioak antolatu zituzten Ugaon, Orozkon, Laudion eta inguruko beste hainbat herritan.

Bizkaia –eta Gipuzkoako mendebaldean– ukitzen duten beste eremu batzuk baimenak Eusko Jaurlaritzak eman behar ditu. Bere buruari, bidenabar esanda, SHE-SAk eskatutakoak baitira. Aitor Urrestiren iritziz, baimen prozedurak “izoztuta” ditu Jaurlaritzak, frackingak eragin duen aurkako mugimendua ikusita fronte gehiago ez irekitzearen.

Nafarroan baimen bakarra dago emanda, Erriberako lurrak hartzen dituen Aquiles eremuari dagokiona, baina proba sismikoak hasiko diren zantzurik ez da oraingoz. Eta Araban, Enara Handiari buruzko berri gutxi dago, hasieran aurreikusitako zazpi putzuetako bi –bata Foronda inguruan, bestea Koartangon– azkenik baztertu dituztela ez bada. Zultatze lanak hastear zeudela hamaika aldiz iragarri ostean, une honetan ezinezkoa da aurreikuspen fidagarriarik ematea Araba erdialdeko putzuez. Fracking Ez-eko Mikel Oteroren esanetan, “azken batean, koska nagusia da ea nor izango ote den makinak leku zehatz batean paratuko dituen lehengoa”. ■



JANGURA PRODUKZIOAK-EN PROIEKTU BAT

GOSARIAK

CD-LIBURUA

XARMA BEREZIKO LANKIDETZA EGITASMOA

Testuak Joseba Sarrionandia Musika Gose
Ilustrazioak eta diseinua Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea



**GARAREkin
salgai**
Larunbata 25
eta igandea 26

8,95€
Soilik

"Bi gose mota daude, aho-urdailekoa eta zentzu-gogamenekoa.
Hemen dituzue gogoarentzako gosariak"

Joseba Sarrionandia



LIX LOPEZ

«Pentsaera ez da aldatzen norberaren kultura, hizkuntza eta espiritualitatetik abiatzen ez den arte»

Kanadako jatorrizko herrientzat egindako lanari esker mundu osoko talde indigenak ezagutu ditu Lix Lopezek. Joan-etorriko bide luzea egin du Erdialdeko Amerikako mendietatik, samien lurraldera eta handik Ipar Amerikara. Asko ikasi du eta asko du irakasteko eta hutsik egin gabe joaten da Vancouver-ko (Kanada) unibertsitatera. Ez ordea eskolak ematera, lurra lantzeraz baizik.

Testua eta argazkiak:

| JON ARTANO IZETA |

LIX LOPEZ maia da eta hala dio: “Milaka urtez lurra landu du maia zibilizazioak. Gure aurrekoek lurra erein izan dute, eta horri eusten saiatzen naiz ni ere”. Familia maia batzuek auzolanean sortutako baratzean jarduten da. Artoak, babarrunak eta kalabazak duten garrantziaz hasi da, baina gero beste hiruko bat txirikordatu du bere hizketan behin eta berri: Kultura, hizkuntza eta espiritualitatea.

Nongotarra zara?

Ixtahuacan izeneko herrian jaio nintzen, maien lurraldean dago. Ofizialki Guatemala da eta San Ildefonso de Ixtahuacan esaten diote. Gure aiton-amonek ez zuten espainolik hitz egiten; gure amak apurtxo bat baino ez zuen egiten, ez zelako eskolara sekula joan; aitik bai, aita *kastellanizazio*-maisua zen, elizaren eskolan. Gaztetan, gaztelania pixka bat hitz egiten zuelako, parrokian laguntzea pro-

posatu zion apaizak eta horri esker-rrak estudiatu ahal izan dut nik. Etxean mam hizkuntza baino ez genuen hitz egiten.

Hedabideetatik-eta gaztelaniarik ez al zitzaizuen iristen?

Hedabideak? Hamalau urterekin ikusi nuen nik lehenengoz telefono bat! Gaztelania elizaren eskolan irakatsi ziguten. Batik bat espainolez idazten, irakurtzen eta hitz egiten ikastera joaten ginen. Eskola nazio-

nala ere bazegoen, baina ladinoen-tzako zen; hala esaten diegu maia ez direnei. Oso ladino gutxi zeuden eta ez zuten lurra lantzen, dendar-riak ziren, maisuak, botikaria...

Zuk ordea gaztelania baino gehiago ikasi zenuen eskolan.

Bai, ikasten jarrai nezan nahi zuen aitak eta nobizio ere sartu nintzen eskola eta mantenua ez ordaintzeko. Bigarren hezkuntza amaituta kon-turatu nintzen ez nuela elizgizona izan nahi eta marketina ikastera sartu nintzen Guatemalako uniber-tsitatean.

1969an nola zen maia batentzat uni-bertsitatera sartzea?

Hiruzpalau bakarrik ginen Uniber-tsitate Katolikoan, Nazionalean beste aleren batzuk izango ziren seguruenera. Gure aita enplegatu zuen apaizak berak lagundu zidan beka lortzen, badakizu, horiek beren kontaktuak izaten dituzte. Behin eskolan hizkuntzei buruz ari ziren eta nik bi hizkuntza hitz egi-ten nituela esan nien. Eta ikaski-deak hasi zitzaizkidan: “A bai? Eta zein da bigarrena bada, frantsesa? Ingelesa?”. Ez zekiten mama baze-nik ere, eta horiek ziren herrialdeko elite ekonomikoaren semeak.

Nolakoa zen ikaskideekin harremana?

Ez ninduten baztertu. Ni orduan ez nengoen politizatu, baina desber-dina izatearen kontzientzia umeta-tik barneratua genuen: gu ginen maiak; eta beraiek, ladinoak.

Marketin ikasketak amaitzean, misiolari flandriar bati esker Belgi-karako beka bat lortu eta Europara

bidaiaitu nuen. Frantsesa ikasten sei hilabete pasa eta irailean Lovainako Unibertsitatean sartu nintzen sozio-logia ikasle.

Zer iruditu zitzaizun Europa?

Dena zen berria, baina gaztetan moldatzeko gaitasuna handia da... Belgikarrek, horiek ere koloniza-tzaile izan diren arren, oso ondo tratatzen ninduten. Exotikoa nin-tzen beraientzat eta asteburuero familiaren batek gonbidatzen nin-duen. Etxean western bateko indiar bat izatea bezala zen haientzat, eta ni konturatzen nintzen horretaz, baina bestalde beren mahaira eser-tzen ninduten. Eta nire buruari gal-detzen nion: “Hauek, zuriak izan arren, ondo tratatu eta errespetatu egiten naute; Guatemalako ladinoek ordea ez. Zergatik?”. Han hasi nin-tzen gauzak beste alderdi batetik begiratzen. Eta, orduan, ikuspegia ez ezik bizitzako norabidea aldatu zidana gertatu zen: Suedia iparral-

dean, samien lurraldean, Herrialde Indigenen Kontseiluaren II. Batzar Nagusia egingo zutela jakin nuen. Ez nuen dudarik egin.

Estokolmora trenez eta handik autostopez, hiru egun behar izan nituen Kirunara iristeko.

Eta Kirunan zer topatu zenuen?

Mundu osoko indigenak: Erdialde-ko Amerika eta Hego Amerikako-ak, Australiakoak, maoriak, Ipar Amerikakoak, samiak berak... Begiak ireki zizkidaten han entzun-dakoek. Boliviatik etorritakoek beraien ordezkarietan sartu nindu-ten. Nik ez nuen arrastorik han hitz egiten ari ziren gauza gehienez, baina konturatu nintzen bazela identifikazio sentimendu bat. Denok geunden egoera berean: kolonizatuak. Horrek eragiten zuen, eta eragiten du, herrialde indigenen batasuna. Han ezagutu nituen Kanadara ekarriko ninduten kon-taktuak ere.


Ajq'ij-a

“JATORRIZKO HERRIENTZAT lanean hasi ahala nire pentsamoldea errotik aldatzen hasi zen. Nire kultura berreskuratzeko premia sentitu nuen. Hizkuntza, urteetan hitz egin ez arren, ez nuen galdu, baina espiritual-ki... hori beste kontu bat zen. Nire buruari galdetu nion ea zertan jar-dun nintzen hainbeste urtetan katolizismoan. Hutsunea nabaritu nuen barnean. Ez nekien ezertxo ere maia espiritualitateari buruz, eta horren bila hasi nintzen: zeremoniatara joaten, zekitenei galdezka... prozesu luzea da. Orain dela hamairu urte bihurtu nintzen ajq'ij. Izen horrek esan nahi du: eguzkia ezagutzen dutenak. Ajq'ij izateko berezko sena behar da aurrena, eta gero hori lantzea. Egutegia ezagutzen dugu eta jendeari laguntzen diogu zeremonien bidez. Sendatu eta arbasoekin komunikatzeko dohaina dugu. Seguru nago Euskal Herrian ere bada-goela gaitasun hori duen jendea. Energia hor dago, ez da desagertzen”.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia





Astegunez biloba zaintzen du Lixek, mam hizkuntzan hitz egiten dio Kame-ri eta zeremonietara ere eramaten du.

Nola izan zen Kanadara etortzea?

Belgikan ikasketak amaituta Guatemalara itzultzeko plana nuen, baina aurrez Ipar Amerika ezagutu nahi nuen. New Yorkera etorrita Greyhound autobus konpainian nahi adina bidaiatzeko aukera ematen zuen 100 dolarreko tiketa erosi nuen. Mendebaldeko kostara iristean Vancouverko jatorrizko herrien bulegora joan eta boluntario hasi nintzen. Han topo egin nuen George Manuel zenarekin, Herrialde Indigenen Munduko Kontseiluaren sortzaile eta presidentea. Berak esan zidan: “Badakit European, unibertsitatean, ikasi duzula baina gurekin lanean hasten bazara beste gradu bat izango da. Unibertsitatean emango ez dizutena ikasiko duzu gurekin”. Amerikako beste herrialde indigenekin

zuten harremanetarako itzultzaile kontratatatu ninduten. Autobusa utzi eta mundu osoan hegazkinez bidaiatzen hasi nintzen indigenekin biltzeko. Eta barne-bidaia ere hasi zen orduan niretzat.

Zein iritzi duzu Kanadak jatorrizko herriekiko duen jokabideaz?

Gobernua, eta gizartea oro har, konturatu da jatorrizko herrien arazoez. Eta Ottawa ahalegina egiten ari da. Ahalegina, aurpegia garbitu eta itxuroso ateratzeko. Berradiskidetzea keinu sinboliko bezala ondo dago, baina ez du konpontzen herrialde indigenei egindako kaltea. Kultura eta hizkuntzak kendu dizkiete, eta lurrak ere bai. Itun batzuk badira, bai, baina gobernuak nahieran moldatu izan ditu. Erraza da

Estatistiken hotza Iparraldean

GOBERNUAREN ARABERA jatorrizko 60 hizkuntza baino gehiago daude Kanadan. Oso gutxik iraungo dute, dozena-erdiak onenera. Lopezen arabera esperantza izpi bat dago hiztun kopuru handi samarra dutenentzat: cree, inuktitut, soto, mohawk, blackfoot eta anishnaabeg. Maia hizkuntzak ere asko dira, 30en bat, eta batzuek osasun hobexegoa dute. “Guatemalan badira eskola elebidunak duela hogeiren bat urtetik. Horrek bakarrik ezin du hizkuntza mantendu ordea. Jendeak egin behar du ahalegina, eta horretarako konzientzia politikoa behar da”.

asko sentitzen dut esatea, baina ez da nahikoa. Erreserbetan bizi dira oraindik. Zein burutan sartzen da pertsonak lur zatitxo batean gordetzea? Diru partiketa desorekatua eginez lortu dute tribuak banatzea. Bestalde, egon badaude diputatu indigenak baina joko-eremu horretan sartzeak ez ditu indigenen arazoak konponduko. Sistema sendo zurkaiztua dute eta barrutik ezin da ezarritakoaren kontra joan.

Zein da orduan modua?

Herrialde indigenek beraiek egin behar dute borroka. Eta horretarako da hain garrantzitsua kultura, hizkuntza eta espiritualitatea berreskuratzea. Elkar hartu, baina gero ekintza ez bada hiru horietan oinarritzen, betiko politikak errepikatzen dira. Pentsatzeko modua ez da aldatzen norbere kultura, hizkuntza eta espiritualitatetik abiatzen ez den arte. Hiru horiek banaezinak dira eta zimendua osatzen dute, baina ez zaie arretarik jartzen. Lehen —eta orain ere bai— gehiago hitz egiten zen lurraz hizkuntzaz baino. Akatsa da hori. Bada, dena den, herrialde indigenen iratzartze bat. Nik badut fedea gazteengan. ■



Lehenengo ekografia euskaraz

AITOR MONTES
Aramaioko fami-
liako medikua da
eta euskaltzale
nekaezina. Azken
bi urteetan ezagun
egin da hedabidee-
tan, Osakidetza
euskalduntzeko
hainbat eta hain-
bat eskaera egin
duelako. Azken
eskaera ekogra-
fiaren txostenare-
na izan da, eta
euskaraz jaso du,
Montesen hitzetan lehen aldiz ger-
tatu da halakorik.

Euskal Autonomia Erkidegoko
osasun zentroetan ahozko hizkun-
tza euskara izateak duen garrantzia
jabetuta dago Montes medikua,
baina ez du uste idatzizko komuni-
kazioaz ahaztu behar denik. Bere
ustez, gauza bat da herritarrari eus-
karazko arreta eskaintzea, eta beste
bat, Osakidetza lan hizkuntza



Aitor Montes medikuak (erdian) bere ordezkariak euskalduna izatea eskatu zuen joan den udan.

euskara izatea. Bide horretan,
pazienteen historia klinikoa euskara-
tzea eskatu du, baita odol analisiak
ere. Ez du lortu, baina bai ekografi-
aren kasuan. Paziente batentzako
ekografia eskaera egin zuen eta
emaitzak euskaraz jaso nahi zituela
adierazi zuen. Halaxe gertatu da.
Montesen ustez, oso garrantzitsua
da halako adibide bat egotea, aurre-
kari bihur daitekeelako.

Bahea

**Kike Amonarrizek Bai Euskarari
Saria jasotakoan irakurritako testu
zatia:**

“Baina esan behar dut sari honek
batez ere, poza, poz handia eta
emozioa eragin dizkidala. Pentsatzen
dudalako, urte hauetako lanaz gain,
lan honen azpian dagoen filosofia
eta izpiritua ere saritu direla:
euskararen aldeko konpromisoa eta
lana modu baikorrean bideratzea.
Euskara, pozerako eta jolaserako
tresna gisa ikustea. Konfrontaziorako
armatzat baino, elkarbizitzarako
oinarritzat hartzea. Euskara denona
dela eta gure tribuan kolore eta
pentsakera guztietako jendearentzat
lekua dagoela sinistea. Euskaltzale
guztiok eroso sentitu ahal izango
garen espazioak sortzen saiatzea.
Biktimismo eta ezkortasun guztien
gainetik eta oztopo eta eraso
guztien azpitik, hizkuntza aldeko
jarrera irmo bezain zabala
mantentzea, errealista bezain
animosoa, kezkatua bezain
itxaropentsua”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Gure hildakoak

URTE HASIERATIK 3.000 immigranteek galdu dute bizi-
tza Mediterraneo gurutzatu nahian, Migrazioen
Nazioarteko Erakundearen txostenaren arabera. Adi-
tuek kalkulatu dutenez, itsasotik berreskuratzen
den hildako bakoitzeko beste bi omen dira inoiz aur-
kitzen ez direnak. Hau da, 3.000 hildako eta 6.000
desagertu. Txosten berak dio 2000. urtetik hona
22.000 lagun hil direla Europara iritsi nahian eta
1998tik beste 6.000 hildako egon direla Mexiko eta
AEBen arteko mugan. Hildakoen jatorria: %30 Saha-
raz azpiko Afrikatik zetorren, %23 Ekialde Hurbiletik
eta Afrika iparraldetik eta %25 Afrikako Adarrekoak
ziren. Siria eta Eritrea izan ziren jatorriko herrialde
nagusiak. Egunez egun Europara iristeko saiakera
gehiago daude; joan den astean 200 immigrante afri-
karrek Melillako hesia gurutzatu nahi izan zuten.

Milaka hildako eta desagertu horiek Europara iritsi
nahi zuten, eurentzako “paradis” gertukoena zelako
bizirauteko, baita miseriatik ihes egiteko ere, eta gose-
tik, gaitzetatik, errepresio politikotik... Saiakera

horretan euren hilobia zulatu zuten Mediterraneoaren
hondan. Gure hildakoak dira, erantzukizuna dugu-
lako. Sistema kapitalistaren hildakoak dira, putre
moduan lehengaiak aprobetxatu eta lur haietako
herritarrak ahazten dituelako; eta metropolira garraia-
tuz gero, gutxiengo baten zerbitzura jartzen ditu.
Gure erakunde hildakoak dira, “hirugarren” mun-
dua alboratuta duten eragile politiko eta sozialena, eta
kooperazio ekonomikorako eta garapenerako aurre-
kontua murrizten dutenena. Jendarte indibidualista-
ren hildakoak ere badira, berekoia, insolidarioa, kon-
tsumo zalea; salbuespenak salbuespen, begiak ixten
ditugu errealtate hori ez ikusteko.

Erakunde, gobernu eta eragile politiko nahiz sozia-
letan aldaketa erradikala behar da, baita jendartean
ere, Mediterraneo eta munduko beste
zenbait toki ez daitezen bihurtu giza hila-
bi erraldoi.

Juan Mari Arregi



Herri Harresia ez, baina alfonbra gorria ere ez

Duela bi urte greba orokor batean istiluak eragitea leporatuta, Urtzi Martinez eta Jon Telletxea espetxeratzeko agindua eman zuen Bilboko epaile batek. Joan den larunbatean, urriak 11, haiekiko elkartasunezko Askegunea antolatu zuten Deustun; amaieran, bi gazteak atxilotuta eraman zituen Ertzaintzak. Hona hemen gertatutakoaren kronika.

| UNAI BREA |

URTZI MARTINEZ eta Jon Telletxea ez ezik, beste bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Deustuko Askegunean. Herri Harresia ez zela izango hamai-ka aldiz errepikatu zuten deitzaileek –Grebalariai Aske plataformak–, baina poliziaren lana errazteko ere ez zeuden Deustun bildutakoak. Goiz osoa iraun zuen elkartasunezko ekimenaren ostean, 13:45ean azaldu ziren Martinez eta Telletxea euren sorterriko San Pedro plazara. Kioskoko teilatura igo, eta handik jaitsi ziren, euren kasa eta txalo artean, ordubete inguru geroago.

Espainiako Gobernuak inposatutako lan erreformari erantzuteko, greba orokorra izan zen 2012ko martxoaren 29an. Egun hartan desordena publikoa eragitea egotzita, iaz epaitu zituzten Urtzi Martinez eta Jon Telletxea. Iragan urriaren 2an agortu zitzairen espetxera beren kabuz joateko epea. Ez ziren aurkeztu. Egun hartan, Askegunerako deia egin zuen Grebalariai Aske plataformak.

Herri Harresirik ez zela izango gogoraraziz eman zioten hasiera Askeguneari: “Helburua bidegabe-keria salatzea da, eta goiz osoa plazan irautea; edozein arrazoirengatik polizia sartzen bada, bizkarra erakutsiko diegu eta lasaitasunez jokatu-ko dugu”, eskatu zuten antolatzaileek.

Kioskoko gainean poliziaren zain

Lasai joan ziren hurrengo orduak. Plazaren kanpoko aldera begira, *Urtzi eta Telle aske!* zioen pankarta bati txandaka eutsi zioten herri mugimenduko hainbat kidek. Plaza



AMAIA LEKUNBERRI

barruan, berriz, gero eta giro hobe-za goizak aurrera egin ahala.

Martinez eta Telletxea Askegunera iritsi orduko, ehunka lagun zituzten zain. Plaza erdiko kioskokoaren teilatura igo ziren, eta handik minutu gutxi-za azaldu ziren Ertzaintzaren furgonetak, hogeiren bat. Plazan bildutako gehienek kioskoko inguratu eta ertzai-nei bizkarra erakutsi zieten. Elkarren besoei heldu gabe, antolatzaileek eskatu bezala. Ez zen Herri Harresia, baina ohorezko pasabidea ere ez zen.

Hiru saiakera egin zituen Ertzaintzak kioskora gerturatzeko, eta azkenik lortu zutenean minutu bat aski izan zuten jendetza zeharkatzeko. Hori bai, aurrez mehatxu eginda: berriz erresistentzia egonez gero, gogor sartuko ziren. Ez zen beharrezkoa izan, eta hala ere bi lagun atxilotu zituzten.

Martinez eta Telletxeak teilatuan ordubete pasatxo zeramatenean, ertzain bat igo zen horreterako

beren-beregi ekarritako eskailerara, eta haiekin hitz egin zuen, labur. Grebalariek teilatuan jarraitu zuten. Bigarrenez igo zen ertzaina, bigarrenez hitz egin zuten hirurek, eta orduan bai, Martinez lehenik eta Telletxea ondoren, beren kabuz jaitsi ziren, ukabilak altxatuz metro batzuk behe-rago zituzten ehunka lagunei eman-dako babes eskertu ostean. Babes horrek atxilotetaren unean jarraitu zuen. Eta minutu gutxi geroago, Grebalariai Aske plataformak bertaratu-takoei eskerrak eman eta *Internaziona-la* eta *Eusko Gudaria* abestuz eman zitzaion amaiera Askeguneari.

Bestelako Askegunea egitea, hori-xe zuten xede Deustukoa deitu zute-nek. Desobedientziarako bideak zabalduz doaz Euskal Herrian. ■

argia.com Askegunearen bideoa lotura honetan ikusgai (Topatu.info-ren eskutik).



Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA

EUSKARAZ



Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIaren eskutik.

Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Xabier Letona



DANI BLANCO

Etorkizuna: iragan mendeko soldatak

AMORRAZIOAZ gain, Caja Madrideko txartel beltzen aferrak erakusten du zein sakona den Espainiako ustelkeriaren putzua. Eta egoera non amaituko den ere irudika ezina da gaur gaurkoz. Finantza mundua eta botere guneetako agintarien arteko etengabeko salerosketa argiago ikusten da. Txartel beltzen ordainketetan hala irudikatzen da: dozenaka milaka euro hoteletan, festetan, alkoholean, jatetxeetan, zapatetan, zezenetan, ehizan... Rodríguez Rato, Blesa, Santin, Spottorno, Rodríguez-Ponga... 27 PPkoak dira, 15 PSO-Ekoak, 5 Ezker Batukoak, 11 sindikalista... Guztien artean txartel beltzen operazio honetan 15,5 milioi euro gastatu zuten, gehiena Caja Madrideko garaian. Dena diru beltzean, baina iruzurra 120.000 eurotik gorakoa ez bada, ez ei dago delitu fiskalik.

Diru asko, zalanza barik, baina gutxi horietako askok ohikoan irabazten zituzten kopuruekin: Caja Madrideko Administrazio Kontseiluko 10 pertsonen artean 71 milioi euro irabazi zuten lau urtetan. Miguel Blesa kutxako lehendakariak berak bakarrik 20 milioi euro lau urtetan. Herritarrek ez dute ongi ikusten hori, baina haien begietara ez da hain eskandalu handia. Askok pentsatzen du, gainera, kopuru horiek finantzak guztiz aske zebiltzan garaikoak direla. Baina ez, finantzen munduan, gaurko urrea atzoko bera da: Santander bankuko Administrazio Kontseiluko 16 kideek 29,76 milioi euro banatu zituzten 2013an.

Baina diru asko izanda ere, kopuru ñimiñoak dira kontuan



hartzten badugu Espainian esparru publikotik bankuen erreskaterako bideratu diren dirutzak. Caja Madriden oinordekoa den Bankia-Madrilgoa gehi beste sei kutxen bategitea—duela bi urte erreskatatu zuen Espainiako Estatuak: zuzenean 22.424 milioi euro jarri zituen eta zeharka—abalak, banku txarraren sorrera...—120.000 milioi; hau Espainiaren urteko

Zein anestesia mota erabiltzen da herritarrek tarjeta beltzen 15,5 milioi euroekin asalda daitezen eta 144.000 milioi euroren aurrean erreakziona ez dezaten?

BPGren hamarrena baino gehiago. Zein anestesia mota erabiltzen da herritarrek txartel beltzen 15,5 milioi euroekin asalda daitezen eta 144.000 milioi euroren aurrean erreakziona ez dezaten?

ESPAINIAKO finantza sistema osoaren hondamendia saihesteko prezioa izan ei da. Hondamendia dirutan, hondamendia aurrekontuetako murrizketetan eta hondamendia ideologikoa, besteak beste publikoak ziren zazpi kutxa esku pribatuetan geratuko direlako Estatuak oraingo bere akzioak (%61,7) erosi baino askoz mer-


keago saltzen dituenen. Dirua bakarrik ez, legea ere finantza sistemaren menpe jarri da eta lurrikara horren azken dardarak egun hauetan bizi dira euskal kutxetan, publikoa zena pribatu bilakatuz. Hori bai, EAJ, PP, PSOE eta kutxetako agintariek behin eta berriaz azpimarratu duten gisan, “legeak behartuta”.

Baina lasai, Espainia hazten ari da eta. EBN gehien haziko dena izango ei da aurten. Hazkundearen txanponaren bestaldeaz hitz egiten denean, berehala ateratzen dira 5 milioi langabetu eta hori da seguruenik alderik beltzena, baina ez bakarra. Ondorengo ondorio-rik larrienetakoa soldaten eta bizi-mailaren jaitsiera da, eta etorkizunean datorrenaz ondo jabetzeko zer hobea AEBetako ispilura begiratzea baino.

Munduko Diru Funtzaren arabera, AEBek %3,3ko hazkundera izango dute urte amaierarako. Barack Obamak lau haizetara saltzen du azken 55 hilabeteetan 10,3 milioi lanpostu sortu direla beren herrialdean. Langabezia datu ofiziala %5,9koa da. Egiatzko datuak okerragoak dira, baina bada datu oso esanguratsua, herritarren bizimailaren bilakaeraz asko adierazten duena: soldaten etengabeko beherrakada. Pew Research Center-ek egindako ikerketa baten arabera: AEBetako batez besteko soldataren eroste ahalmena 1979koaren parekoa da. Francesc Peirón *La Vanguardia*ko New Yorkeko korrespondentalak idatzi berri duen moduan: “Aberatsenen herrialdean beste mende bateko soldatak”. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

2



Tartean Teatroa "Pankreas" antzezana

3 lagunentzako bina sarrera
Urriak 24 ostirala · 22:00
Campos Eliseos Antzokian

Bilbo, BIZKAIA
www.teatrocampos.com

3



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

4



Erlea gure sendagile

liburua
www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2429. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

• Narcisa Urreiziti Basterretxea (Mutriku)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

• Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)
• Berta Zumalde Goitia (Donostia)
• Arkaitz Sodupe Intxausti (Segura)
• Garazi Cristobal Azkarate (Urruña)

HERRI OHIUA - "Ez" CDa

• Eneko Fernandez Artigas (Sopela)
• Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
• Ostolaza Udal Liburutegia (Deba)
• Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

BIXENTE AMEZTOVren ARGIA azalak

• Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

EUREKA! Zientzia Museoa

• Amaia Goitia Saenz de Buruaga (Gasteiz)
• Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Petti

Kursaal ganbera aretoa
Urriak 24 - 20:00tan - 15€



EP Disko berriaren
Aurkezpena

Musikariak: **Iñigo & Igor Telletxea, Rafa Aceves, Osoron (Gose)**



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Sarrerak:

· Victoria Eugenia Antzokia
· www.kutxasarrerak.net
· Takila **20 €**

